Baldintza administratibo zehatzen agiria, zerbitzuak prozedura irekiaren bidez kontratatzeko, adjudikazio-irizpide bat baino gehiago daudelarik

I. KONTRATUAREN ELEMENTUAK

1. Xedea
2. Administrazioaren betebeharrak
3. Jaurpide juridikoa
4. Kontratuaren atalak
5. Kontratuaren balio zenbatetsia eta lizitazioaren aurrekontua
6. Aurrekontuan kreditua egotea
7. Kontratuaren iraunaldia
8. Kontratazio espedientea izapidetu

II. LIZITAZIOA

9. Adjudikazio prozedura
10. Lizitazioaren publizitatea
11. Printzipioak: berdintasuna, gardentasuna, publizitatea, informazioa eta konfidentzialtasuna.
12. Proposamenak aurkeztu eta eskatutako agiriak:
    I. Arau orokorrak
    II. Komunikazioak lizitatzaileekin
    III. Proposamenak aurkeztu: non eta nola.
    IV. Eskatutako agiriak
13. Enpresa lizitatzailearen ondorengotza prozeduran

III. PROPOSAMENAK IREKI ETA KONTRATAZIO MAHAIAREN JARDUNA

14. Kontratazio mahaia
15. Kontratazio mahaiaren jarduna
16. Balio anormal edo neurriz kanpokodun eskaintzak
17. Kontratazio mahaiak eskatuta, eskakizunak betetzen direlako ziurtagiriak aurkeztu.

IV. ESKAINTZAK SAILKATU ETA KONTRATUA ADJUDIKATU ETA FORMALIZATU

18. Eskaintzak sailkatu
19. Aurkeztu beharreko agiriak
20. Adjudikazioa
21. Kontratua burutu
22. Kontratua formalizatu
23. Formalizatzeko epea
24. Formalizazio ezaren ondorioak
25. Aseguruak
26. Konfidentzialtasuna

V. KONTRATUA EGIKARITU

27. Lanak hasi
28. Kontratuaren erantzulea
29. Kontratua bete
30. Lan akastun edo gaizki egikarituak

31. Epea bete beharra
32. Prezioa ordaindu
33. Kontratistaren erantzukizuna hirugarrenei eragindako kalteengatik
34. Prezioak aldatzeko ahala
35. Lan, gizarte eta ingurumen arloetako betebeharrak
36. Giza baliabideak eta baliabide materialak
37. Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak
38. Lan kontratuetan subrogatu
39. Kontratua aldatu
40. Kontratua eten
41. Enpresa kontratistaren ondorengotza kontratua egikaritu bitartean
42. Konfidentzialtasuna
43. Datu personalen tratamendua
44. Lanen jabetza

VI. KONTRATUA AZKENDU

45. Kontratua azkendu
46. Bizioak eta akatsak berme-epean
47. Bermeak itzuli eta ezereztu
48. Kontratua suntsiarazi
49. Kontratuak laga eta azpikontratazioa

VII. ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK, ERREKURTSOAK ETA DEUSEZTASUNA

50. Administrazioaren prerrogatibak
51. Kontratazio arloko errekurtso berezia
52. Birjarpenezko errekurtsoa

Baldintza administratibo zehatzen agiri ereduzkoa, zerbitzuak prozedura irekiaren bidez kontratatzeko, adjudikazio-irizpide bat baino gehiago daudelarik

I.- KONTRATUAREN ELEMENTUAK

1.- Xedea

Kontratu honen xedea agiriko karatulak dakarren zerbitzu-ematea da.
Zerbitzu-emateak bete egingo ditu agiri honetako eta preskripzio teknikoen agiriko baldintzak, horiek denak kontratuaren osagarriak direlarik.
Agiriko karatulak horretarako parada emanez gero, lizitatzaileek aldaerak aurkeztu ahal izango dituzte, ezarritako eskakizun eta baldintzen arabera eta horien gehienezko kopurua ere bete beharko dutelarik.
Kontratua atalka banatuz gero, atal bakoitzaren xedea unitate funtzionala izango da, modu independentean burutzeko gai.
Halaber adieraziko da agiriko karatulan, batetik hautagai edo lizitatzaile batek atal kopuru mugaturik izango ote duen eskaintza aurkezterakoan, bestetik mugatuko ote den lizitatzaile bakoitzari adjudikatu dakiokeen atal kopurua, eta azkenik eskaintza integratzailea egiteko aukera dagoen ala ez.

2.- Administrazioaren betebeharrak

Kontratuaren zertarakoa eta bete beharreko premiak ere agiriko karatulak dakartza.

3.- Jaurpide juridikoa

Kontratuak, administratiboa izanik, lege-arau hauek bete beharko ditu:

- Agiri honetako klausulak, karatulakoak eta preskripzio teknikoen agirikoak.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoen Kontratuei buruzkoa (SPKL), zeinek Espainiako ordenamendu juridikora ekarri baititu Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra (HAKLAO), Sektore Publikoen Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen kontra egiten ez duenean.
- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen zati bat garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoen Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen kontra egiten ez duenean.
- Toki Jaurpideko Oinarriak Arautzeko apirilaren 1987ko Legea eta apirilaren 18ko 781/86 Errege Dekretu Legislatiboa, Toki Jaurpide arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bateratua onartzekoa.
- 1955eko uztailaren 17ko Dekretuz onartutako Toki Korporazioen Zerbitzuen Araudiko III. titulua.
- Datuen babesari buruzko Estatuko eta Europar Batasuneko araudi osoa.
- Hala Estatuan nola Autonomia Erkidegoan edo udalerrian kontratazioa arautzen duten gainontzeko xedapen guztiak, udalei aplikatzekoak baldin badira.
- Ordezko arau moduan aplikatuko dira Zuzenbide Administratiboko gainontzeko arauak eta, horien ezean, Zuzenbide Pribatukoak.

Kontratua bera, kontratuaren eranskinak, jarraibideak, agiri edota arau mota guztiak, Administrazioak emanak edo hitzartutakoan aplikatu daitezkeenak, ez ezagutzeak ez du inoiz salbuetsiko enpresaria bete beharretik.

Baldintza administratibo berezien agiri honen eta espedientearekin batera doan beste agiri teknikoen artean kontraesanik balego, agiri honek arautuko luke lehentasunez, kontu eta zehaztapen teknikoetan izan ezik.

4.- Kontratuaren atalak

A) Administrazio kontratatzailea
Kontratatzeko ahalmena.- Kontratazio organoa agiri honetako karatulak dakar.
Kontratuaren erantzulea.- Agiri honetako karatulak dakar edo kontratazio organoak erabakiko du.
Kontratuaren jarraipenaren ardura duen unitatea.- Espedientea sustatu duen udal saila, karatulak dakarren bezala.
Kontratatzailearen profila.- Agiri honetako karatulak dakar. Kontratatzailearen profila Udalaren webgunean agertuko da. Kontratazio organoaren jardunaren gaineko datuak eta informazioak dakartza.

B) Kontratista

Kontratatzeko gaitasuna.- Portugaleteko Udalarekin kontratua egin ahal izango dute pertsona natural zein juridikoek, Espainiakoek zein atzerrikoek, baldin eta, jarduteko gaitasuna dutelarik, kontratatzeko debekuren bat ez badute eta beren kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, SPKLren arabera. Arau aplikagarriek hala ezarriz gero, lizitatzaileak, prozeduran parte hartu ahal izateko, ziurtatu behar du bete egiten dituela bere antolamenduari, etekinen zertarakoari, finantzaketa-sistemari edo ezartzen diren bestelakoei buruzko eskakizunak. Kontratistek, halaber, kontratuaren xedea diren prestazioak gauzatzeko beharrezkoa den enpresa- edo lanbide-gaikuntza izan beharko dute, hala badagokio.

a) Pertsona juridikoak. Pertsona juridikoei ez zaie kontraturik adjudikatuko, baldin eta, estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera berezko dituzten helburuak, xedea edo jardun-eremua kontratuaren prestazioekin bat ez badatoz.
b) Europar Batasuneko enpresak edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetakoak. Enpresa horiek kontratua egin ahal izango dute Portugaleteko Udalarekin, baldin eta, ezarrita dauden estatuko legeen arabera gaituta badaude dena delako prestazioa egiteko.
c) Europar Batasunaz kanpoko enpresak. Nazioarteko akordioen ziozko betebeharren aplikazioa alde batera utzi gabe, enpresa horiek txosten bidez justifikatu beharko dute jatorri duten estatuak enpresa espainiarren parte-hartzea onartzen duela.
d) Enpresaburuen elkarteak. Kontratua egin ahal izango dute Portugaleteko Udalarekin prestazio hori emateko aldi baterako osatzen diren enpresaburuen elkarteek. Elkarteek betebehar solidarioa hartuko dute eta ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan formalizatzea, harik eta kontratua adjudikatzen zaien arte. Enpresaburuen elkartearen izenean ordezkari edo ahalordedun bakar bat izendatu beharko dute, kontratutik sortutako eskubideez baliatzeko eta betebeharrak betetzeko besteko ahalordeak izango dituena kontratua amaitu arte. Hala ere, enpresek, kopuru handiak kobratu eta ordaintzeko, ahalorde mankomunatuak eman ahalko dituzte. Aldi baterako enpresa-elkarte horiek, gutxienez ere, kontratua amaitzen den arte iraungo dute.

5.- Kontratuaren balio zenbatetsia eta lizitazioaren aurrekontua
Publizitatea eta adjudikazioaren prozedura zeintzuk izango diren erabaki ahal izateko, kontratu honen balio zenbatetsia, Administrazioak jasan behar duen BEZ kontuan hartu gabe, karatulak dakar.
Administrazioak kontratu honetan egin behar duen gastuaren gehienezko aurrekontua ere karatulak dakar.
Eskaintzen objektua izango den lizitazio mota, zeinek ezarriko baitu zenbateko handiagoko eskaintzak kanpo geratuko direla, karatulak dakar. Hobekutzak beherantz egingo dira, zenbateko zehatz eta mugatu bat adierazita.

6.- Aurrekontuan kreditua egotea
Aurrekontuan kreditu nahikoa dago kontratu hau betetzeak Administrazioari dakarzkion betebehar ekonomikoak estaltzeko. Aurrekontuko kontsignazioa ere karatulak dakar.
Baldin eta desdoitzerik gertatzen bada baldintza administratibo berezien agirian ezarritako urteko ordainketen eta zerbitzuen garapen normalak eskatzen duen antolamendu ekonomikoaren benetako beharrizanen artean, horren kausa delarik espedienteari aurreikusi baino geroago ekin izana, baimendutako eteteak, epeak luzatu izana edo denon intereseko beste edozein arrazoi, behar bezala justifikatuta, kontratazio organoak birdoitu egingo ditu urteko ordainketak, APKLANeko 96. artikuluarekin bat etorriz.
Aurrez izapidetu beharreko kontratazio espedienteetan adjudikazioak baldintza etengarria izango du: hots, unean uneko urtealdian kreditu egokia eta nahikoa egotea.

7.- Kontratuaren iraunaldia
Kontratuaren gehienezko iraunaldia edo kontratua egikaritzeko gehienezko epea karatulak ekarriko du. Karatulak horrela ezarriz gero, kontratua luzatu ahal izango da, zerbitzuak berriro emate aldera. Luzapena kontratazio-organoak erabakiko du eta nahitaezkoa izango da enpresaburuarentzat, baldin eta, Udalak aurreabisua kontratuaren iraupen-epea amaitu baino gutxienez ere bi hilabete lehenago egiten badu. Inolaz ere ezingo da kontratua luzatu aldeen isilbidezko adostasunez.
Kontratuaren mugaegunean kontratu berririk egin ez denean, kontratistak eman beharreko prestazioaren jarraitutasuna bermatzen duenik, kontratazio-organoarentzat aurreikusten ezinezkoak ziren eta adjudikazio-prozeduran gertatu diren gertakarietatik heldu diren gorabeheren ondorioz, eta interes publikoko arrazoiak daudenean prestazioa ez eteteko, jatorrizko kontratua luzatu ahalko da, kontratu berria egikaritzen hasten den arte eta, nolanahi ere, gehienez ere bederatzi hilabetez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe; horretarako baldintza izango da, betiere, kontratu berrirako lizitazio-iragarkia jatorrizko kontratua amaitzeko data baino gutxienez ere hiru hilabete lehenago argitaratu izana.
Objetutzat lan-zuzendaritzari laguntzea edo proiektuen kudeaketa integratua duten zerbitzu-kontratuen iraunaldia loturik dauden lan-kontratuena bera izango da, baina iraunaldi horri gehitu egingo zaio lanen likidazioa egiteko aurreikusten den epea.

8.- Kontratazio espedientea izapidetu
Kontratazio espedientearen izapidetza arrunta, presakoa edo larrialdikoa izan daiteke, agiri honetako karatulak ezarritakoaren arabera.
Presakoa.- Presakotzat jotako espedienteak espediente arrunten prozedura bera betez izapidetuko dira, baina berezitasun batzuk izanik:

a) Presako espedienteek lehentasuna izango dute izapideetan parte hartzen duten organoek bideratuak izateko; organo horiek bost egun edukiko dituzte dagozkien txostenak eta izapideak egiteko.
b) Adjudikazio-prozedura hastea erabaki ondoren, erdira ekarriko dira kontratua lizitatu, adjudikatu eta formalizatzeko SPK Legean ezarritako epeak, Lege horretako 119.2.b atalean ezarritakoak izan ezik.
c) Kontratua egikaritzen hasteko epea ezingo da izan hilabetetik gorakoa, kontratua egiten den egunetik kontatzen hasita.

Larrialdikoa.- Larrialdikotzat jotako espedienteek berezitasun hauek izango dituzte izapidetzean:
Kontratazio-organoak agindu dezake, administrazio-espedientea izapidetzeko beharrik gabe, gertatutakoa konpontzeko edo gerora sortutako beharrari erantzuteko behar den oro egitea, edo xedea libreki kontrata dezake, osorik edo partez, lege honetan ezarritako betebehar formalen pean egon gabe, eta are kreditu nahikoa izateko betebeharrik gabe ere. Behin erabakia hartuta, zuzkitu egingo da.
Prestazioak ematen hasteko epea ez da hilabete baino luzeagoa izango, aurreko paragrafoan aurreikusitako erabakia onartzen denetik kontatzen hasita. Epe hori gainditu gero, prestazio horiek kontratatzeko, prozedura arrunta izapidetu beharko da.

II.- LIZITAZIOA

9.- Adjudikatzeko prozedura

Kontratu hau prozedura irekiaz adjudikatuko zaio kalitatearen eta prezioaren arteko erlazio onena aurkezten duen eskaintzari, baldintza-agiri honetako karatulak dakartzan irizpideak kontuan hartuta.
Irizpideok zerikusi zuzena eduki beharko dute kontratuaren xedearekin eta haien haztapen erlatiboa ere karatulan jasoko da.
Prozedura irekian interesa duen enpresaburu orok aurkeztu ahal izango du proposamena eta kontratuaren baldintzak ezin izango dira inolaz ere negoziatu lizitatzaileekin.

10.- Lizitazioaren publizitatea

Lizitazio honen gaineko iragarkia Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratuko da, Sektore Publikoaren Kontratuen Plataforman eta Euskadiko Herri Administrazioaren Kontratuen Plataforman ere bai. Kontratua erregulazio harmonizatukoa izanez gero, hala adieraziko du baldintza administratiboen agiriko karatulak eta EBAOn ere argitaratuko da, SPKLko 135. artikuluarekin bat etorriz.
Proposamenak egiteko epea honela zenbatuko da:

- Erregulazio harmonizatuko kontratuak. Epea baldintzen agiriko karatulak ezarriko du eta gutxienez hogeita hamabost egun naturalekoa izango da, lizitazioaren iragarkia Europar Batasuneko Argitalpen Ofizialen Bulegora bidaltzen den egunetik aurrera. Epe hori laburtu ahal izango da SPKLko 156.2 atalean aurreikusitako kasuetan; zehatzago, bost egun laburragoa izango da, baldin eta, onartuta badago eskaintzak bitarteko elektronikoak erabiliz aurkeztea.
- Erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuak. Epea baldintzen agiriko karatulak ezarriko du eta gutxienez hamabost egun naturalekoa izango da, lizitazioaren iragarkia Udalaren kontratatzailearen profilean argitaratu eta biharamunetik zenbatzen hasita.

Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, ulertuko da epea luzatu egingo dela hurrengo lanegunera.
Epe horiek kasu hauetan luzatuko dira:

- Eskaintzak egiteko epea bukatu baino sei egun lehenago erantzun ez bazaio, interesatuek egindako informazio-eskaerari, eskaera hori egin bada eskaintzak egiteko epea baino hamabi egun lehenago gutxienez; salbuespena egingo da eskatutako informazio horrek garrantzirik ez duenean, SPKLko 136.2 atalarekin bat etorriz.
- Kontratazioaren baldintza-agirietan aldaketa nabarmenak egiten direnean, SPKLko 136.2 atalarekin bat etorriz.

Eskatutakoa baldintza-agirietan edo gainerako dokumentazioan ezarritakoari buruzko argitasunak direnean, erantzunak lotesleak izango dira eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko dira, lizitazio-prozeduran berdintasuna eta konkurrentzia bermatzeko moduan.

11.- Printzipioak: berdintasuna, gardentasuna, publizitatea, informazioa eta konfidentzialtasuna

Kontratazio-organoak berdintasunez tratatuko ditu lizitatzaileak, diskriminaziorik gabe, eta gardentasun- eta proportzionaltasun-printzipioen arabera jardungo du.
Kontratazio-organoek ezingo dute ezagutarazi enpresaburuek beren eskaintza aurkezteko unean konfidentzialtzat jotako informazioa, baldin eta, besterik xedatzen ez bada informazio publikoa eskuratzeari buruzko indarreko legedian eta adjudikazioaren publizitateari buruz eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruz SPK Legean bildutako xedapenetan. Konfidentzialtasunari eutsi beharra ezingo da hedatu eskaintza osora. Kontratazio-organoek ezin izango dute informazio hori ezagutarazi, lizitatzailearen aldez aurretiko baimenik gabe.
Kontratistak gorde beharko du kontratua egikaritzean eskura dezakeen informazioaren konfidentzialtasuna.

12.- Proposamenak aurkeztu eta eskatutako agiriak

I.- Arau orokorrak

Proposamenak egin ahal izango dituzte Espainiako edo atzerriko pertsona fisiko edo juridikoek, baldin eta, jarduteko gaitasun osoa badute, ekonomia- eta finantza-kaudimena eta kaudimen tekniko eta profesionala edo sailkapena egiaztatu badute, beren helburuak, betiere, zerikusi zuzena badu kontratuaren objektuarekin, estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera, eta behar bezala egiaztatzen badute eta antolamendua baldin badute, giza elementu eta elementu material nahikoekin kontratua behar bezala egikaritu ahal izateko.
Zehaztasun teknikoak edo kontratua prestatzeko agiriak egiten edo kontratazio-prozeduraren prestaketan kontratazio-organoari aholku ematen aurrez jardun duten enpresek lizitazioan parte hartu behar badute ere, kontratazio-organoak behar diren neurriak hartuko ditu horrek lehia faltsutu ez dezan. Neurri horien artean ezarri ahalko da lizitazio horietatik kanpo geratu ahalko direla aipatutako enpresak eta haiei lotutakoak –Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako kasuetako batean daudenak hartuta halakotzat–, tratu-berdintasunaren printzipioa beteko dela bermatzeko beste biderik ez dagoenean. Kontratazio-prozeduraren prestaketan izandako parte-hartzearen esparruan trukatutako informazioa komunikatu egingo zaie gainerako hautagai edo lizitatzaileei, tratu-desberdintasuna bermatu nahian.

Objektutzat edozein kontratu egikaritzen dela zaintzea, gainbegiratzea, kontrolatzea eta zuzentzea daukaten kontratuak, bai eta objektutzat segurtasunaren eta osasunaren arloko koordinazioa daukatenak ere, ezingo zaizkie adjudikatu dagozkien kontratuen adjudikaziodun diren enpresa berei, ez eta, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako zentzuan, enpresa horiei lotutako enpresei ere.
Proposamenak aurkezteak berekin dakar lizitatzaileak agiri honetako klausula guztiak, karatulako zehaztapenak eta kontratuko gainerako agiri guztiak baldintzarik eta salbuespenik gabe onartzea. Halaber, erantzukizunpeko deklarazio bat egin beharko du egiaztatzeko, batetik, aurkeztutako datu guztiak zehatzak direla, eta bestetik, kontratuaren eskakizun guzti-guztiak betetzen dituela.
Lizitatzaile bakoitzak, hala banaka nola aldi baterako elkarte baten kide gisara diharduelarik, proposamen bakar bat baino ezingo du aurkeztu. Halaber, ezingo du proposamenik aurkeztu aldi baterako elkartea eginez, aurretik bakarka aurkeztu badu. Arau horiek hautsiz gero, ez da onartuko enpresa horrek izenpetutako proposamenik.

II. Komunikazioak lizitatzaileekin

Udalaren eta lizitatzaileen arteko komunikazioak eta jakinarazpenak horretarako prestatutako helbide elektronikoa erabiliz edo, bestela, agerraldi elektronikoaren bidez egin ahalko dira, lizitatzaileek euren proposamenean ezarritakoaren arabera. Dena den, horrek ez dio kalterik egingo ekintzen publizitateari, legeak ezarri bezala.
Ahozko komunikazioa erabili ahalko da kontratazio-prozedura baten funtsezko elementuei buruzkoak ez diren komunikazioetarako, baldin eta, ahozko komunikazioaren edukia nahikoa dokumentaturik badago. Horri dagokionez, kontratazio-prozedura baten funtsezko elementuak honako hauek dira: kontratazioaren baldintza-agiriak, parte hartzeko eskaerak eta eskaintzak.

III. Proposamenak aurkeztu: non eta nola

Proposamenak bide elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira.
Enpresa lizitatzaileek Kontratazio Publikoa Euskadi izeneko plataformaren bitartez aurkeztuko dituzte proposamenak, http://www.contratacion.euskadi.eus/contratacion webgunean.
Proposamenok aurkezteko gehienezko epea Udalaren kontratatzailearen profilean adierazitakoa izango da.
Lizitazio elektronikorako betekizun bakarra da identifikazio elektronikoko metodo balioduna eta indarrean edukitzea: ziurtapen digitala, *Hodeia* plataforman ziurtapen profesionala, BAKQ, NAN elektronikoa eta abar.

IV. Eskatutako agiriak

A ARTXIBOA: ERANTZUKIZUNPEKO DEKLARAZIOA

1- Operadore ekonomikoaren Europako kontrataziorako dokumentu bakarra (EKDB), behar bezala beteta. Udalaren kontratatzailearen profilean XML formatuko fitxategia dagoelarik (EKDB fitxategia), lizitatzaileak deskargatu ahal izango du bere ordenagailura eta, Europar Batzordearen lineako zerbitzu doakoa erabiliz, bete ahal izango du lineako galdetegi hori.
Baldintza administratiboen agiriko II. eranskinean daude, gainera, galdetegi hori betetzeko jarraibideak.
2- Erantzukizunpeko deklarazio osagarria ere aurkeztu beharko da, I. eranskineko ereduaren arabera.

Erantzukizunpeko deklarazioarekin batera, kasuaren arabera, hauexek ere aurkeztu beharko dira:

2.1- Enpresarien elkartea eratuz gero:

2.1.1 Aldi baterako enpresen elkartea eratzeko konpromisoaren agiria, honakoak adierazi behar dituelarik: izenpetzaileen izen-abizenak eta inguruabarrak, horietako bakoitzaren partaidetzaren ehunekoa, kontratuaren indarraldiaren bitartean Administrazioaren aurrean guztien ordezkaritzan jardungo duenaren izen-abizenak eta, kontratuaren adjudikatari suertatuz gero, aldi baterako enpresen elkartea eratzeko konpromisoa bereganatzen dutela.

2.1.2 Enpresako partaide guztien erantzukizunpeko deklarazio bana, I. eranskineko eta EKDB ereduekin bat etorriz.

2.2- Beste enpresa batzuen kaudimen eta baliabideetara joz gero, kaudimena egiaztatzeko erabilitako enpresak edo enpresek EKDB eredua aurkeztu beharko dute, baina atal hauek bakarrik beteta: II. zatiko A eta B atalak eta III. zatia osorik.

2.3- Karatulak gaikuntza enpresarial edo profesionala eskatuz gero, gaikuntza horren ziurtagiria.

2.4- Antolamenduaren, etekinen zertarakoaren edo finantzaketa-sistemaren inguruko eskakizunak eginez gero, horren gaineko ziurtagiriak.

2.5- Atzerriko enpresek Espainiako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jartzen direla eta lizitatzaileari legokiokeen atzerriko jurisdikzio-foruari uko egingo lioketelako adierazpena aurkeztu beharko dute.

2.6- Behin-behineko bermea, agiri honetako karatulak eskatuz gero.

Oharrak:

1. Agiriak aurreikusten duenean kontratuaren objektua atalka banatzea, baldin eta, ekonomi eta finantza kaudimenaren inguruko eskakizunak aldatzen badira atal batetik bestera, kaudimen eskakizun berberak aplikatzen zaizkien atal guztiek edota atal multzo guztiek beharko dute erantzukizunpeko deklarazio bana.
2. Gaitasunari, kaudimenari eta kontratatzeko debekuei buruzko inguruabarrak eskaintzak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira, eta ordutik kontratua burutu arte.

B ARTXIBOA: FORMULAREN BIDEZ KUANTIFIKAGARRIAK EZ DIREN IRIZPIDEEN AGIRIAK

Lizitatzaileek beharrezko agiriak aurkeztu beharko dituzte euren eskaintzak baloratu eta neurtu ahal izateko, karatulak ezartzen dituen kontratua adjudikatzeko formula bidez kuantifikagarriak ez diren irizpideei dagokienez.

B artxibo honek inolaz ere ez du bilduko eskaintza ekonomikoa, ez eta horren gaineko agiri garrantzizkorik, ez eta formula bidez kuantifikagarriak diren irizpideen gainekorik ere. B artxibo honetan formula bidez ebaluagarriak diren irizpideen gaineko agiririk (C artxiboa) bilduz gero, hala aurkeztutako agirian nola euskarri elektronikoan, eskaintza baztertu egingo da lizitaziotik.

Halaber, behar izanez gero, eskaintzaren konfidentzialtasunaren gaineko deklarazioa ere egin beharko da, III. eranskinaren arabera.

Oharra: agiriak aurreikusten duenean kontratuaren objektua atalka banatzea, artxibo guztiek artxibo bana eskatuko dute.

C ARTXIBOA: FORMULA BIDEZ KUANTIFIKAGARRIAK DIREN IRIZPIDEEN AGIRIAK

C artxiboak agiri hauek bilduko ditu:

1. Eskaintza ekonomikoa: ekonomi proposamena, IV. eranskineko ereduaren araberakoa

- C artxiboak proposamen bakarra bilduko du, lizitatzaileak edo horren ordezkariak izenpetua eta IV. eranskineko ereduarekin bat etorriz idatzia.
- Ekonomi eskaintzak aparteko partida batean adierazi beharko du balio erantsiaren gaineko zergaren izenean jasanarazi beharreko zenbatekoa.
- Ekonomi eskaintzaren zenbatekoak ezin izango du kontratuaren lizitazioaren aurrekontua gainditu.
- Ondorio guztietarako ulertuko da eskainitako prezioaren barruan daudela kontzeptu guztiak (gastuak, edozein zergalaritza-eremutako tasak eta arielak eta kontratistaren industria onura), BEZa izan ezik, BEZa aparteko partida batean jasanaraziko baita.
- Karatulak horrela aurreikusiz gero, C artxiboan ekonomi proposamenari dagozkion eranskinak ere bilduko dira.
- Proposamenak ez dira onartuko, baldin eta:
    - Kontraesan, omisio, akats edo ezabaketak izanik, horiek oztopoa badira Administrazioarentzat eskaintza kontuan hartu ahal izateko funtsezkoa dena jakin ahal izateko.
    - Lizitazio tasa gehienezkoa gainditzen badute.
    - Proposamenaren zenbatekoan akats nabarmena badute.
    - IV. eranskineko proposamen eredua funtsean aldatzen badute.
    - Lizitatzaileak aitortzen badu proposamena bideraezina dela, huts egitea dakarrelako edo nahiko sendoa ez delako.
- Jasota uzten da ekonomi eskaintzako kontularitza akatsak zuzendu egin beharko direla.
- Eskaintzak atzera botatzea ez dakarren kontraesanik edo akatsik egonez gero, kontratazio mahaiak arrazoizko irizpideak hartuko ditu kontuan Administrazioarentzako erabaki abantailatsuena hartzerakoan.
- Lizitatzaileek proposamen bana baino ezin izango dute aurkeztu. Dena den, karatulak baimenduz gero, proposamenak baimendu beste aldaera-konponbide eduki ahal izango ditu eta horrek berez ekarriko du ekonimi esakaintza-aldaera batzuk izatea.

2. Agiriko karatulak zerrendatutako agiriak, beharrezkoak direnak formula bidez kuantifikagarriak diren irizpideak baloratzeko

Oharra: baldintza-agiriak aurreikusten duenean kontratuaren objektua atalka banatu ahal izatea, atal guztiek gutunazal bana aurkeztea eskatuko dute.

AGIRIEN EGIAZKOTASUNA
Administrazioak, hala kontratua adjudikatu aurretik nola adjudikatu ostean eta kontratua garatu bitartean ere, egiaztatu ahal izango du gutunazaletako eta, behar izanez gero, karatularen arabera adjudikatzeko irizpideak diren agirietako edukia. Hortaz ulertuko da enpresak datu eta zertzelada gezurrezkoak aurkezteak berez ekarri ahal duela kontratua baliogabetzea, kontratistari egoztekoa zaion betetze ezagatik, eta horrek berez ekarriko duela eratutako behin betiko bermea galtzea edo, bestela, bermerik eratu ez bada edo eratzea eskatu ez bada, kalte-ordaina ordaindu beharra, bermearen

balio berberekoa. Horretaz gain, Administrazioari ere kalte-ordaina ordaindu beharko dio sorrarazitako kalte eta galerengatik, horren zenbatekoa konfiskatutako bermearena baino handiagoa bada.

13.- Enpresa lizitatzailearen ondorengotza prozeduran

Enpresek bat egiterik, zatikatzerik edo enpresaren ondarea edo jarduera-adar bat eskualdatzerik gertatzen bada prozedura izapidetzen den bitartean eta adjudikazioa egin baino lehen, sozietate bereganatzaileak, bat-egitearen emaitzak direnak, zatiketaren onuradunak direnak edo enpresa-ondarearen edo jarduera-adarraren eskuratzaileak izango dira enpresa lizitatzailearen edo hautagaiaren ondorengoak prozeduran, baldin eta horretarako gaitasuna badute eta kontratatzeko debekurik ez badute eta bere kaudimena nahiz sailkapena egiaztatzen baditu, adjudikazio-prozeduran parte hartu ahal izateko administrazio-klausula partikularren agirian eskatutako baldintzak beteta.

III.- PROPOSAMENAK IREKI ETA KONTRATAZIO MAHAIAREN JARDUNA

14.- Kontratazio mahaia

Eskaintzak baloratzeko organo eskuduna kontratazio mahaia da, zein, 9/2017 Legeko bigarren xedapen gehigarriaren arabera, mahaiburuak, gutxienez hiru mahaikidek eta idazkariak osatuko baitute.

Kontratazio mahaiaren funtzionamendu erregimena 9/2017 Legeak eta garatzeko xedapenek arautuko dute, 40/2015 Legeak kide anitzeko organoei buruz xedatutakoa ere bete behar delarik. Kontratazio mahaiaren osaera zehatza, prozedura bakoitzekoa, kontratariaren profilean argitaratuko da.

Kontratazio mahaiaren saio ororen egun-orduak ere argitaratuko dira kontratariaren profilean eta jendaurreko saioak ere lizitatzaileei posta elektronikoz jakinaraziko zaizkie.

15.- Kontratazio mahaiaren jarduna

Behin igarota proposamenak egiteko epea, horrexetarako izendatutako kontratazio mahaia, aldez aurretik eta jenderik gabeko ekitaldi batean, lizitatzaileek aurkeztutako erantzukizunpeko deklarazioa eta gainontzeko agiriak kalifikatuko ditu. Akats konpongarririk sumatuz gero, hiru egun balioduneko epea emango dio lizitatzaileari akatsak zuzen ditzan eta, behar izanez gero, bost egun balioduneko epea, berriz,. argibideak eman edo agiri osagarriak ekar ditzan. A artxiboko agiriak irekitzea kontratazio mahaiko buruaren edo idazkariaren identifikazioarekin egingo da.

Horren ostean, B artxiboko agiriak irekiko dira. Eskaintzen zifratua kontratazio mahaikide titular zein ordezkoen klabe publikoen kontra egingo da, mahaikide titular zein ordezko horiek idazkaria edo mahaiburua, udal kontuhartzailea eta udal idazkari nagusia izan behar direlarik.

Kontratazio mahaiak balio-iritzi bat eginez, kuantifikagarriak diren irizpideak aplikatuz baloratuko ditu egindako proposamenak eta, balorazio horri begira, behar beste txosten tekniko eskatu ahal izango du.

Hala ere, 9/2017 Legeko 146.2 atalak aipatzen duen adituen batzordeak edo organismo tekniko espezializatuak esku hartuko du, hala egitea badagokio, irizpide horiei pisu handiagoa eman zaielako, modu automatikoan ebaluagarriak diren irizpideei dagokiena baino. Batzorde horren osaera agiri honetako karatulak dakar.

Lizitatzaileek, prozeduran jarraitu ahal izateko, puntu kopuru eskagarriaren gutxieneko atalasea iritsi beharko dute, karatulak xedatzen duenarekin bat etorriz. Gutxieneko atalase hori balio-iritzi bat eginez kuantifikagarriak diren irizpideei emandako puntuen ehuneko berrogeita hamarrekoa izango da, 9/2017 Legeko 146.3 atalarekin bat etorriz. Horren ondorioz, ehuneko berrogeita hamar hori iristen ez duten eskaintzak kontratazio mahaiak ez ditu kontuan hartuko eta ez dute aurrera egingo hautaketa prozesuan.
Behin jarduketa horiek guztiak eginda eta behin jasota eta aztertuta eskatutako txostena edo txostenak, C artxiboan aurkeztutako proposamenak irekitzeko ekitaldi publikoa egingo da, kontratazio mahaikide titular zein ordezkoen klabe publikoen kontra egin ere, mahaikide titular zein ordezko horiek idazkaria, udal kontuhartzailea eta udal idazkari nagusia izan behar direlarik.
Ekitaldi jendaurreko horretan jakitera emango da onartutako proposamenen balio-iritzi bat eginez ebaluagarriak diren irizpideen ebaluazioaren emaitza.
Kontratazio mahaiak formula batez kuantifikagarriak diren irizpideak aplikatuta baloratuko ditu egindako proposamenak eta, horretarako, behar beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu.
Behar izanez gero, beraz, kontratazio mahaiak berriro egingo du bilera eta, aurrekoa kontuan hartuta, txostenak irakurri ostean, proposamenak, akta, adjudikatzeko proposamena, gainontzeko agiriak eta egokiesten dituen oharpen guztiak helaraziko dizkio kontratua adjudikatzeko eskumena duen kontratazio organoari. Beharrezkotzat joz gero, kontratazio mahaiak berriro eskatu ahal izango du kontratua adjudikatzeko behar beste txosten egitea.
Administrazioak eskumena du eskaintzen edukia egiaztatzeko, kontratua adjudikatu baino lehen.

16.- Balio anormal edo neurriz kanpokodun eskaintzak

Balio anormal edo neurriz kanpokodun eskaintzak zeintzuk diren erabakitzeko, 9/2017 Legeko 149. artikulua beteko da, baldin eta, baldintza-agiri honetako karatulak aurreikusten badu eskaintza anormalak edo neurriz kanpokoak identifikatzeko parametro objektiborik.

17.- Kontratazio mahaiak eskatuta, eskakizunak betetzen direlako ziurtagiriak aurkeztu behar izatea

Prozedurak ondo bukatze aldera, kontratazio mahaiak adjudikatzeko proposamena egin baino lehen, eskatu ahal izango zaie lizitatzaileei agiriak ekar ditzatela, legeak kontratatzeko ezarritako baldintzak eta baldintza-agiriek ezarritakoak betetzen dituztela ziurtatzeko.
Horrela balitz, lizitatzaileak gehienez hamar egun balioduneko epe batean aurkeztu beharko ditu eskatutako agiriak. Aurkeztutako agirietan akats edo omisio zuzengarririk egonez gero, gehienez hiru egun balioduneko epea emango zaio lizitatzaileari, gaizki eginak zuzen ditzan.
Hala legeko nola baldintza-agiri honetako eskakizunak betetzen ote diren baloratzeko une erabakiorra proposamenak egiteko epearen bukaera izango da.
Beraz, epe horretan beharrezko agiririk ez aurkezteak lizitatzailea prozeduratik baztertzea ekarriko du berez.

IV.- ESKAINTZAK SAILKATU ETA KONTRATUA ADJUDIKATU ETA FORMALIZATU

18.- Eskaintzak sailkatu

Kontratazio organoak beheranzko hurrenkeran sailkatuko ditu egindako proposamenak, baldin eta, anormaltzat eta neurriz kanpokotzat jo ez badira behintzat, baldintza-agiri honetako karatularekin bat etorriz. Sailkapen hori egiteko, agiriotako adjudikatzeko irizpideak eta kontratazio mahaiaren proposamena kontuan hartuko ditu. Dena den, behar beste txosten ere eskatu ahal izango du.

Berdinketak ebatzi.- Bi proposamen egonez gero, bata bestea bezain onuragarri (puntuetan berdinduta daudela jo ahal izateko, bi hamartar ere berdin eduki beharko dute), karatulako irizpideak erabiliko dira eta, beti ere, 9/2017 Legeko 147.1 atala. Karatulak berdinketak ebazteko irizpiderik ekarri ezean, 9/2017 Legeko 147.2 atalekoak erabiliko dira.
Berdinketa ebazteko agiriak berdinketa gertatzen denean, ez lehenago, ekarriko dituzte lizitatzaileek. Horretarako, kontratazio mahaiak beharrezko agiriak eskatuko dizkie berdindutako enpresei eta gutxienez bost egun naturaleko epea emango die agiriak ekartzeko.

Hutsik.- Kontratazio organoak ezin izango du lizitatzioa hutsik deklaratu, baldin eta, baldintza-agiriko irizpideen arabera, eskaintza edo proposamen bat onargarria bada.
Kontratua ez adjudikatzeko erabakia hartzea eta adjudikazio-prozeduran atzera egitea.- Hala ere, 9/2017 Legeko 152. artikuluak ezarri bezala, Administrazioak, espedientean behar bezala justifikatu behar diren interes publikoko arrazoiengatik, adjudikazioa egin baino lehen, erabaki ahal izango du kontratua ez adjudikatzea edo prozeduran atzera egitea, prozedurak akats zuzenduezina duenean. Kasu bietan kalte-ordaina emango zaie lizitazioan parte hartzeko gaitzat jo diren hautagaiei, lizitazioan parte hartzeak ekarri dizkien gastuak direla eta, karatulan ezarritako moduan edo, bestela, Administrazioaren ondare-erantzukizuna kalkulatzeko erabiltzen diren irizpideen arabera.

19.- Aurkeztu beharreko agiriak

Kontratazio mahaiak adjudikatzeko proposamena eginda, adjudikazioa egin baino lehen, kontratazio organoak kalitate-prezio erlazio onena duen eskaintza aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko dio, errekerimendua jaso eta biharamunetik zenbatzen hasita, 10 egun balioduneko epean (5 egun baliodunekoa, espedientea presakoa bada) Kontratazio Zerbitzura aurkeztea hala legeko nola baldintza-agiri honetako eskakizunei buruzko ziurtagiriak, karatulan ezarritakoaren arabera; ziurtagiriok hauexek dira:

1.- Parte-hartzailearen edo beraren ordezkariaren nortasun agiri nazionala edo horren kopia konpultsatua.

2.- Lizitatzailea pertsona juridikoa denean, eratze- edo aldatze-eskritura, behar bezala inskribatuta Merkataritza Erregistroan, baldin eta, hala eskatzen badu legeria aplikagarriak. Eskatu ezean, berriz, jarduteko ahalmena egiaztatzeko, eratze-eskritura edo agiria, estatutuak edo fundatzeko ekintza aurkeztu beharko dira, baldin eta, horretan jardueraren arauak badaude eta inskribatuta badaude dagokien erregistro ofizialean. Europako Batasuneko estatu kideetako enpresariak badira, baina espainolak ez, profesionalen edo merkataritza erregistro batean inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute (kopia konpultsatua), baldin eta, beraien estatuko legeriak hala eskatzen badu.

3.- Lizitatzailea bere izenean aritzen ez denean edo pertsona juridikoa denean, ahalordetze-eskritura jatorrizkoa edo horren fotokopia konpultsatua, zeinen bitartez ordezkatu ahal izango baita lizitazioan aritzen den sozietatea edo entitatea. Ahalordetze-agiri horrek behar bezala inskribatuta egon beharko du dagokion erregistro ofizialean. Horren salbuespena izango dira jarduteko ahalmena eratze-eskrituraren bitartez egiaztatu behar ez duten elkarteak eta entitateak, hauexek entitateko organoek horrexetarako hartutako indarreko erabakien bidez egiaztatu ahal izango baitute, beti ere euren estatutuekin edo fundatzeko ekitaldiarekin bat etorriz. Ahalordetze-agiria ekitaldi jakin baterako denean, ez da beharrezkoa izango Merkataritza Erregistroan inskribatuta egotea, Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94.1.5 atalarekin bat etorriz.
4.- Karatulak dakartzan ekonomia- eta finantza-kaudimeneko eta kaudimen tekniko eta profesionaleko gutxieneko baldintzak dituztela egiaztatu beharko dute, edo, horren ordez, agiri iraungi gabea aurkeztu beharko dute, karatulak ezartzen duen sailkapenaren baliokidea dutela egiaztatzekoa, Ekonomia eta Ogasun Ministerioko Aholku Batzordeak edo Euskadiko Autonomi Elkargoko organo eskudunak emana.
Kaudimena kanpoko bitartekoen bidez osatuz gero, karatulak dakartzan ekonomia- eta finantza-kaudimeneko eta kaudimen tekniko eta profesionaleko gutxieneko baldintzak dituztela egiaztatu beharko dute, edo, horren ordez, agiri iraungi gabea aurkeztu beharko dute, karatulak ezartzen duen sailkapenaren baliokidea dutela egiaztatzekoa, eta V. eranskineko konpromisoa ere bai.
5.- Karatulak hala eskatuz gero, eskatutako gaikuntza profesional edo enpresariala dutelako egiaztagiria.
6.- Kontratua egikaritzeko behar diren giza bitartekoak edo bitarteko materialak benetan dituztelako egiaztagiria.
7.- Europar Batasuneko estatu kide batekoak diren baina Espainiakoak ez diren enpresen jarduteko gaitasuna enpresok ezarrita dauden estatuaren legeriaren arabera dagokien erregistroan inskribatuz egiaztatuko da edo, bestela, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Nagusiko I. eranskinak dakartzan egiaztagiriak aurkeztuz, kontratu mota kontuan hartuta.
Aurreko paragrafoan aipatu gabeko atzerriko enpresek jarduteko gaitasuna dutela egiaztatu beharko dute, Espainiak haien estatuan duen Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren txostena erakutsita edo enpresaren egoitzaren lurralde-eremuari dagokion kontsuletxeko bulegoaren txostena erakutsita.
8.- Foru Ogasunak edo Zerga Administrazioko Estatu Agentziak emandako agiri positiboa, tributu betebeharrak egunean dituztelako egiaztatzekoa.
9.- Ekonomi jardueren gaineko zergan urtealdian altan emanda daudelako agiria edo zergaren azken ordainagiria. Zergatik salbuetsita egonez gero, erantzukizunpeko deklarazioa, zergaren matrikulan baja eginda ez daudelakoa, salbuespenaren arrazoia ere aipatuta, VI. eranskineko ereduarekin bat etorriz.
10.- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituztelako egiaztagiri positiboa edo, behar izanez gero, altaren agiria dagokien mutuan eta ordainagiria.
Tributu eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrei dagozkien deklarazio edo agiri guztiak edo batzuk aurkeztu behar ez dituzten lizitatzaileek hala egiaztatu beharko dute, Herri Administrazioen Kontratuen Legeko Araudi Nagusiko 15. artikuluko erantzukizunpeko deklarazioaren bitartez.
11.- Baldintza-agiri honetako karatulak hala eskatuz gero, behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria. Behin betiko bermea Udal Diruzaintzan eratu behar

da Administrazio kontratatzailearen alde eta haren zenbatekoa adjudikazioaren prezioaren % 5ekoa izango da, BEZa kenduta. Hala ere, prezioak unitarioak baldin badira, lizitazioaren oinarri-prezioaren % 5ekoa izango da behin betiko bermearen zenbatekoa. Behar izanez gero, berma osagarria ere eratu beharko da. Bermea 9/2017 Legeko 108. artikuluak aurreikusten dituen moduetatik edozein erabiliz aurkeztu ahal izango da (IX. eranskinak bermea abal bidez eratzeko eredua dakar).

Aldi baterako enpresa elkarteen kasuetan, enpresa partaideen egoitzak eta identifikazio fiskaleko kodeak agertu beharko dira. Era berean, bermeak enpresa partaideetako batek edo batzuek eratu ahal izango dituzte, baina beti ere iritsi beharko dute batera eskatutako zenbatekoa eta aldi baterako elkarteko kide guztiak solidarioki bermatuta egon beharko dira.

Administrazioak eskubidea izango du abalen izenpearen legitimazioa eskatzeko.

Behin betiko bermea zeri dagokion.- Eskatuz gero, behin betiko bermea 9/2017 Legeko 110. artikuluko kontzeptuei egokituko zaie.

Eskakizunak betetzen diren edo ez egiaztatzeko unea proposamenak egiteko epearen bukaera izango da.

Euskadiko Autonomia Elkargoko Kontratisten Erregistroan edo Estatuan horren baliokidea den erregistroan indarreko ziurtagiria aurkezteak salbuetsi egingo du ziurtagiri horrek aipatzen dituen agiriak aurkeztu beharretik, baldin eta, ziurtagiriak berariaz aipatzen baditu agiriok eta horien balio eta indarraldiaren gaineko zinpeko deklarazioarekin batera aurkezten bada.

Aldi baterako enpresa elkarteen kasuetan, elkarteko enpresa guztiek banaka egiaztatu beharko dituzte gaitasuna eta kaudimena, aurreko ataletan ezarritakoaren arabera. Eskatzen den kaudimena egiaztatzeko, metatu egingo da elkartea osatzen duten enpresen kaudimena.

12.- Egikaritzaren baldintza bereziak betetzen direlako deklarazioa, VII. eranskinarekin bat etorriz.

13.- Enpresek egiaztatu egingo dute Administrazio honi zerbitzua emateak ez dakarrela berez beren giza baliabide guztiak kontratua betetzera dedikatzea. Horretarako deklarazio batean agertuko dute egunean beste entitate publiko zein pribatuei ematen dizkieten zerbitzuen zerrenda.

Akatsak zein omisioak konpontzea. Aurkeztutako agirietan akats edo omisiorik topatuz gero, hala jakinaraziko zaio interesatuari eta gehienez hiru egun balioduneko epea emango zaio, akatsa konpon dezan.

Bete eza. Epe horretan beharrezko agiririk ekarri ezean, ulertuko da eskaintza kendu egin dela eta lizitatzailea prozeduratik kanporatuko da. Horiek horrela, eskaintzen sailkapenaren ordenari jarraikiz, hurrengo lizitatzaileari eskatuko litzaioke agiri sorta berbera eta halaber eskatuko litzaioke lizitazioaren oinarri-aurrekontuaren % 3, BEZa kenduta. Zenbateko hori lehenengo eta behin, behin-behineko bermetik kenduko litzateke, baldin eta, behin-behineko bermerik eratu bada, noski.

20.- Adjudikazioa

Kontratazio organoak agiriak jaso ondorengo bost egun balioduneko epean (hiru egun, espedientea presakoa bada) adjudikatu beharko du kontratua, ebazpen arrazoituaren bidez adjudikatu ere.

Lizitatzaileei jakinarazi. Adjudikazioa lizitatzaileei jakinaraziko zaie, kontratua formalizatzeko epea ere adierazita.

Adjudikataria aldi baterako enpresa-elkartea bada, enpresa-elkart ea formalizatzeko eskritura publikoa ekarri beharko du, kontratua formalizatu baino lehen.
Jakinarazpenak behar adina informazio eman beharko du, interesatuek modua izan dezaten adjudikazioaren erabakiaren aurka behar besteko oinarriarekin errekurtsoa egiteko, 9/2017 Legeko 151. artikuluarekin bat etorriz. Jakinarazpenak, halaber, adieraziko du zein epetan egin behar den formalizazioa.
Adjudikazioaren publizitatea. Adjudikazioa 15 eguneko epean argitaratuko da kontratatzailearen profilean.

21.- Kontratua burutu
Kontratua behin formalizatuta burutuko da.
Ulertuko da kontratua kontratazio organoaren egoitza dagoen tokian egin dela.

22.- Kontratua formalizatu
Administrazio publikoek egiten dituzten kontratuak administrazio-agiri batean formalizatu beharko dira. Agiri hori lizitazioaren baldintzei lotuko zaie, estu-estu, eta nahikoa izango da edozein erregistro publikotan sartzeko. Nolanahi ere, kontratua eskritura publiko bihurtzea eska dezake kontratistak, eta, orduan, haren kontura izango dira eskritura publikoak egiteak sortutako gastuak.
Kontratua formalizatzeko agirian ezingo da inola ere sartu adjudikazio-irizpideak aldatzea eragingo duen klausularik.

23.- Formalizatzeko epea
- Kontratua, 9/2017 Legeko 44. artikuluaren arabera kontratazio arloko errekurtso berezia jar badakioke, ezingo da formalizatu adjudikazioaren jakinarazpena lizitatzaileei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun habileko epea igaro baino lehen.

Behin epea igarota kontratuaren formalizazioa baliogabetzea dakarren errekurtsorik jarri gabe edo, behar izanez gero, errekurtsoa ebatzi behar duen organoak baliogabetzea indargabetzen duenean, adjudikatariak kontratua formalizatu beharko du gehienez bost egunetan, formalizatzeko errekerimendua jaso eta biharamunean zenbatzen hasita.
- Kontratazio arloko errekurtso berezia jartzerik ez badago, kontratua gehienez ere hamabost egun balioduneko epean formalizatu beharko da, lizitatzaileei eta hautagaiei adjudikazioaren jakinarazpena 9/2017 Legeko 151. artikuluan aurreikusi bezala egiten zaien egunaren ondorengotik kontatzen hasita.

Ezin izango zaio ekin kontratuaren egikaritzari, aldez aurretik formalizatuta ez badago. Horren salbuespenak, dena den, izango dira 9/2017 Legeko 153.6 atalaren suposamenduak.

24.- Formalizazio ezaren ondorioak
Kontratua ezarritako epean formalizatu ez bada adjudikatariari egotzi dakizkiokeen arrazoiengatik, eskatuko zaio lizitazioaren oinarri-aurrekontuaren % 3, BEZa kenduta, zigor gisara eskatu ere. Zenbateko hori, lehenengo eta behin, behin betiko bermetik hartuko da, eratuta badago, baina, hala ere, 9/2017 Legeko 71.2.a atala bete beharko da. Horrela gertatuz gero, kontratua hurrengo lizitatzaileari adjudikatuko zaio, eskaintzen sailkapenaren ordena errespetatuta, baina, aldez aurretik, ezarritako epeetan, agiri honetako 19. baldintzak eskatzen dituen agiriak aurkeztuta.

Formalizazio ezaren arrazoiak Administrazioari badagozkio, kalte-ordaina emango zaio kontratistari, berandutzak sorrarazi dizkion kalteengatik.

25.- Aseguruak

Adjudikatariak kontratatu egingo ditu eta, kontratuak eta berme-epeak iraun bitartean, bere kontura mantenduko du erantzukizun zibileko aseguroa, bere alderdi orokorretan edo ustiapen, patronal edo lan bukatuena, behar izanez gero, kontratista aseguratu moduan dagoelarik eta azpikontratista ere bai, behar izanez gero.

Ustiapeneko erantzukizun zibilerako frankizia gehienez 5.000 eurokoa izango da eta ezbeharraren ziozko kalteordainaren gutxieneko muga hauxe izango da:

LIZITAZIOAREN PREZIOA	KALTEORDAINAREN GUTXIENEKO MUGA (€)
500.000 euroraino	100.000
1.000.000 euroraino	300.000
1.000.001etik 3.000.000ra bitartean	600.000
3.000.001etik 9.000.000ra bitartean	1.500.000
9.000.001etik 25.000.000ra bitartean	3.000.000
25.000.001etik 75.000.000ra bitartean	6.000.000
75.000.000tik gora	12.000.000

Horri begira, hala eskatzen zaionean eta, ahal izanez gero, kontratua formalizatu baino lehen, Kontratazio Zerbitzuari eraman beharko dio aseguro-egilearen agiria (VIII. eranskina), kontratistak izenpeturiko erantzukizun zibileko poliza indarrekoa duela egiaztatzeko.

Edonola ere, adjudikatariak eutsi beharko die frankiziaren zenbatekoaren kalte-galera guztiei, bai eta aseguro polizek ezartzen dituzten mugak gainditzen dituen orori ere, eta poliza horiek estali gabeko ondasun eta arriskuei ere bai.

Kontratua aurreikusitako egunean baino beranduago bukatzen bada, beharrezko luzapenak egingo dira eta adjudikatariak behar den gainprima ordainduko du.

26.- Konfidentzialtasuna

Ezingo da ezagutarazi enpresaburuek beren eskaintza (III. eranskina) aurkezteko unean konfidentzialtzat jotako informazioa, SPK Legeko 133. artikuluak ezarri bezala eta hortxe ezarritako eskakizunak beteta, baldin eta, besterik xedatzen ez bada informazio publikoa eskuratzeari buruzko indarreko legedian eta adjudikazioaren publizitateari eta hautagaiei eta lizitatzaileei eman beharreko informazioari buruzko indarreko legediaren xedapenetan.

Kontratistak gorde beharko du kontratua egikaritzean eskura dezakeen informazioaren konfidentzialtasuna, baldin eta, baldintza-agirietan edo kontratuan izaera hori eman bazaio informazio horri, edo, informazio mota dela-eta, halakotzat jo beharrekoa bada.

Betebehar hori informazioaren berri izan eta bost urtez egongo da indarrean, baldin eta, kontratuak edo baldintza-agiriek epe luzeagorik ezartzen ez badute behintzat. Epe hori, nolanahi ere, zehatza eta denboran mugatua izango da.

V.- KONTRATUA EGIKARITU

27.- Lanak hasi

Kontratuaren egikaritzaren hasiera kontratua formalizatzeko agirian adieraziko da.
Presako espedienteetan egikaritza formalizaziotik zenbatzen hasita gehienez hilabetean hasiko da.
Larrialdiko espedienteetan, aldiz, egikaritza gehienez hilabetean hasiko da, kontratazio organoak larrialdia konpontzeko beharrezkoa agintzeko erabakia hartzen duenean zenbatzen hasita. Epe hori gainditu gero, ohiko prozedura izapidetzea eskatuko da.
Kontratuak ezin dira egikaritu formalizatu baino lehen, baldin eta, espedientea larrialdikoa ez bada behintzat.

28.- Kontratuaren erantzulea

Baldintza-agiri honetako karatulak ezarriko du kontratuaren erantzulea zein den. Dena delakoa ere, erantzuleak kontratuaren egikaritza gainbegiratu beharko du eta erabakiak hartu eta beharrezko jarraibideak emango ditu, zerbitzua artez emango dela bermatzeko.
Karatulan espedientearen sustatzaile edo bultzatzaile gisara agertzen den udal saila arduratuko da kontratuaren jarraipenaz eta ohiko egikaritzaz.

29.- Kontratua bete

Kontratistak arrisku eta menturara jardungo du kontratua egikaritzean.
Kontratua hauexek hertsiki betez egingo da: baldintza teknikoen agiria, lan-egitaraua, baldintza-agiri hau eta karatularen arabera kontratu-izaera duen agiri oro, Administrazioaren ordezkariek, dena dela, idatziz, agiri horien burutzapenean edo ulermenean enpresa kontratistari emandako jarraibideen arabera.
Horretaz gain, Administrazioak onetsitako jarraibideak, agiriak, arauak edota eranskinak, mota guztietakoak, ezagutuko ez balitu ere, horrek ez luke salbuetsiko horiek guztiak bete behar izatetik.
Kontratista izango da garatzen dituen lanen eta ematen dituen prestazio eta zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzule, baita, kontratua egikaritzean izandako omisioak, errakuntzak, metodo desegokiak zein amaiera okerrak direla eta, Administrazioari zein hirugarrenei sortutako ondorioen erantzule ere.

30.- Lan akastunak edo gaizki egikarituak

Karatulak ezarritako berme-epeak iraun bitartean, enpresa kontratista izango da kontratatutako lanen burutze egokiaren eta lanek izan ditzaketen akatsen erantzulea. Hortaz, ez du inola ere salbuetsiko, ez eta eskubiderik eman ere, Administrazioaren ordezkariek, lanok egin bitartean, aztertu edo onartu izana, ez eta zatikako egiaztapenetan, balioespenetan edo ziurtapenetan onetsi izana ere.
Enpresa kontratistak ez du inolako erantzukizunik edukiko, lan akastuna edo gaizki egina Administrazioaren agindu baten ondorio zuzen berehalakoa denean.
Baldintza-agiriko karatulak zigorrak aurreikusiko ditu, kontratuaren objektua den prestazioa akats eta guzti betetzen denean eta kontratua egikaritzeko baldintza bereziak betetzen ez direnean aplikatzeko. Zigorrak bete ezaren larritasunaren heinekoak izango dira. Zigor bakoitzaren zenbatekoa gehienez kontratuaren prezioaren % 10ekoa izango da, BEZa kenduta; eta zigor guztien zenbatekoak batera gehienez kontratuaren prezioaren % 50ekoa izango da.
Kontratistak kontratuaren prezioaren egikaritza partzialki urratuz gero, berari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, baldintza-agiri honetako karatulak ezarriko du

Administrazioak zigorrik ezarriko ote dion edo kontratua suntsituko ote duen erabakiko ote duen.
Edonola ere, zigorrak ezartzeak ez du kontratista salbuetsiko, legez dagokiolarik, akatsak zuzendu beharretik.
Baldintzen betetze eza partziala bada edo betetzea akastuna bada, zigorrik aurreikusi gabe, edo aurreikusita ere, zigorrak Administrazioari egindako kalteak ez baditu estaltzen, Administrazioak kalte-ordaina eskatuko dio kontratistari.

31.- Epea bete beharra

Kontratistak kontratua egikaritzeko finkatutako azken epearen barruan bete behar du kontratua; elkarren jarraian jarritako epe partzialak ere bete egin beharko ditu.
Kontratista berandutze-egoeran sartzeko, ez da beharrezkoa izango Administrazioak aldez aurretik ohartarazpena egitea.
Azken epea edo epe partzialak berandu bete badira, bi aukera egongo dira:

a) Baldin eta, kontratista azken epea betetzeko orduan berandutu bada berari egotz dakizkiokeen kausak direla eta, agiriko karatulak adieraziko du zigorrak ezartzea erabaki ote den, eta, hala erabakiz gero, zigor horiek zeintzuk izango diren ere esango da, edo kontratua suntsitzea erabaki ote den. Berandutzeagatiko zigorrak kontratuaren prezioaren ehuneko 5eko multiplo batera iristen diren bakoitzean BEZik gabe, kontratazio-organoak ahalmena izango du kontratua suntsiarazteko, edo, zigor berriak ezarrita, kontratua suntsitzea erabakitzeko.
   Zigorrak kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharrekotik dagokion zenbatekoa kenduz gauzatuko dira, edo, hala badagokio, jarritako bermetik, aipatutako ordainetik kendu ezin direnean.
b) Baldin eta, atzerapena kontratistari egoztekoak ez zaizkion arrazoiengatik sortu bada, baina hura prest azaltzen bada bere konpromisoak betetzeko hasieran jarritako epea luzatuz gero, Administrazioak epe bat emango dio, gutxienez galdutako denboraren bestekoa, kontratistak berak epe laburragoa eskatu ezik.

32.- Prezioa ordaindu

Kontratistak benetan ematen dituen zerbitzuen ordaina jasotzeko eskubidea du, itundutako prezioen arabera, beti ere kontratua bera eta Administrazioaren jarraibideak bete behar dituelarik.
Kontratua, baldintza-agiri honetako karatulak ezarri bezala ordainduko da, behin kontratuaren objektua den prestazioa burututa. Ordainketa osorik edo zatika egin ahalko da, konturako ordainketen bidez edo, segidako traktuko kontratuen kasuan, hitzartutako epemuga bakoitzean ordainduz.
Kontratistak faktura egin beharko du, baldintza-agiri honetako karatulak ezarritakoarekin bat etorriz.
Ordainketak konturakoak izango dira eta azken ziurtapenean gertatzen diren zuzenketak eta aldaketak bete beharko dituzte. Horrek, dena den, ez du esan nahi izango kontratua onartuta, ez eta jasota ere, dagoenik.
Kontratistak konturako ordainketak ere jasotzeko eskubidea izango du, kontratuaren egikaritza prestatzeko eragiketengatik. Edonola ere, eskatuko zaio bermea eratzea: hots, abal bat edo legeak onartzen duen beste edozer.
Bestetik, Administrazioaren ordainketak jasotzeko eskubidea duten kontratistek laga egin ahal izango dute eskubide hori, legearekin bat etorriz. Horretarako, lagapenaren erabakia zalantzarik gabe jakinarazi beharko dio Administrazioari. Baldin eta, baldintza-agiri honetako karatularekin bat etorriz, azpikontratistak zuzeneko ordainketak jasotzeko adostasuna badu, azpikontratariak bere kobratze-eskubideak

laga ahal izango ditu, kontratista nagusiari dagozkion eskakizun berberak bete behar dituelarik.

33.- Kontratistaren erantzukizuna hirugarrenei eragindako kalteengatik

Kontratistaren betebeharra izango da kontratua egikaritzeko bete beharreko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galera guztien kalte-ordaina ematea, 9/2017 Legeko 196. artikuluarekin bat etorriz. Horretarako, adjudikatariak erantzukizun zibileko poliza eduki edo kontratatu beharko du, agiri honek ezartzen duen bezalaxe.

34.- Prezioak aldatu ahala

Kontratuen prezioak aldizka eta aurrez zehaztuta berrikusteko, 9/2017 Legeko III. tituluko III. kapituluaren arabera egin beharko da.

Prezioak aldatzea bidezkoa bada, karatulak ezarri bezalaxe egingo da.

35.- Lan, gizarte eta ingurumen arloetako betebeharrak

Kontratistek bete egin behar dituzte ingurumenaren, gizartearen edo lanaren arloetan aplikatu beharreko betebeharrak, ezarrita datozenak Europar Batasunaren zuzenbidean, zuzenbide nazionalean, hitzarmen kolektiboetan edo Estatuarentzat lotesleak diren ingurumen-, gizarte- eta lan-arloetako nazioarteko zuzenbideko xedapenetan –bereziki, SPK Legeko V. eranskinean jasotakoetan–.

Adjudikaturiko lana burutzeko erabiltzen dituen langileei dagokienez, kontratistak lan arloko arauak, Gizarte Segurantzakoak, minusbaliatuak gizarteratzeari buruzko arauak, lan-arriskuak aurrezaintzekoak eta, azken horiei dagokienez, gizarte prestakuntzaren gainekoak ere bai. Halaber, kontratistak konpromisoa hartuko du enpresa azpikontratariek ere, egonez gero, lan arloko indarreko legeria beteko dutela euren langileekin. Eta lege hauek ere bete beharko ditu: batetik, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onesten duen azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretua; bigarrenik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa; hirugarrenik, 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, lan arriskuak aurrezaintzekoa; laugarrenik, Aurrezaintza Zerbitzuen Arautegia, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretuak onartua; eta azkenik, kontratua burutu bitartean onartzen diren arau guztiak.

Adjudikatariari baino ez dagokio kontratuaren objektua den zerbitzua ematean erabiltzen dituen langileei ordaintzea eta gizarte eta lan kostu guztiak ere bai, beti ere bete behar dituelarik indarreko legeria eta dagozkion lan hitzarmenak ere bai. Udala salbuetsita dago erabat kontratariaren eta beraren langileen arteko harremanen erantzukizunetik.

Kontratua azkentzen denean, kontratuaren objektua diren lanak egin dituztenak ezingo dira inoiz ere geratu erakunde edo organismo publiko kontratatzailearen langile modura.

Kontratuaren objektua den zerbitzuari eragiten dion lan-grebarik eginez gero, kontratazio-organoak errekerituta eta kontratazio-organoak ezartzen dituen epean eta moduan, adjudikatariak irtenbideak eskaini beharko ditu, administrazio eskudunak ezartzen dituen gutxieneko zerbitzuak bermatzeko. Adjudikatariak irtenbide horiek eskainiko edo burutuko ez balitu, kontratuaren zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen dituen beste aldaketa sustatu ahal izango lituzke, onartutako gutxieneko zerbitzuak bermatzeko. Zerbitzuok adjudikatariak bermatu beharko dituenez gero, kontratu horien zenbatekoa beraren fakturaziotik kenduko da. Hirugarren batzuei

kontratatutako lan horietatik datorren erantzukizuna adjudikatariari egokituko zaio, agiri honek aurreikusten dituen ondorio guztietarako.

36.- Baliabide materialak eta giza baliabideak

Zerbitzua edo prestazioa egiteko, kontratistak kontratuaren egikaritza egokiari begira eta itundutako epeak betetzeko beharrezkoak diren baliabide materialak eta giza baliabideak eduki eta mantendu beharko ditu. Giza baliabideei dagokienez, bereziki eduki eta mantendu beharko ditu kontratuaren egikaritzaren erantzuleen zerrendakoak.

Enpresako langileak enpresa kontratistaren mendekoak baino ez dira izango eta enpresa kontratistari baino ez dagozkio enplegatzaile izatetik datozkion eskubideak eta betebeharrak. Halaber bete beharko ditu kontratuak iraun bitartean lan, aurreikuspen, Gizarte Segurantza eta laneko segurtasun eta higiene arloetan indarrean dauden edo hasten diren ebazpenak, kontratatutako zerbitzuari atxikitzen zaizkion eta haren kargura dauden langileei dagokienez. Udalak, beraz, ez ditu bete beharko horrelako lege beharrak, adjudikatariak hartuko baitu bere gain enpresaburu-izaera.

Kontratistak benetan, eraginkortasunez eta jarraitutasunez erabiliko du kontratua egikaritu behar duen lantaldeko kideen gaineko boterea, enpresaburu guztiei dagokien bezala. Zehatzago, soldatak negoziatu eta ordainduko ditu, baimenak, lizentziak eta oporrak eman, langileak ordeztu baja edo absentzia kasuetan, Gizarte Segurantzaren lege beharrak bete, kotizazioak eta prestazioak ordaindu, behar denean lan-arrisku arloko lege beharrak bete, diziplina-boterea erabili eta enplegatu eta enplegatzailearen arteko kontratu-harremanetik datozkion eskubide eta beharrak beteko ditu.

Kontratistak koordinatzaile bakarra izendatuko du, eragiketa, gainbegiraketa, kontrol, kudeaketa, jarraipen, informazio, administrazio, fakturazio eta merkataritza jardueren arduraduna izango dena. Udalaren eta enpresa adjudikatariaren arteko harremanak kontratuaren koordinatzaile horrek bideratuko ditu, kontratuaren udal arduradun gisara.

Kontratistak, halaber, Portugaleteko Udalak kontrataturiko kanpoko zerbitzua egoki burutzeko jarraibide guztiak beteko ditu, lan harremana aitortzea ekar dezakeen ezer gerta ez dadin, 2013ko otsailaren 7ko Alkatetzaren Dekretuak ezarri bezala.

Kontratistak ezin izango ditu bere eskaintzan zehaztutako langileak ordeztu, Administrazioak horrexetarako baimenik eman ezean.

Administrazioak uko egin ahal izango dio desegoki iritzitako edozein elementuri eta enpresak eskubidea izango du Administrazioari erabaki hori erreklamatzeko, hamar egun naturaleko epean, Administrazioak idatziz jakinaraztetik zenbatzen hasita.

37.- Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak

1. Langabeziak bereziki eragindako kolektiboen enplegua sustatzeko baldintzak

Kontratua egikaritzeko langileen kontratazio berrietan, langile horien % 30 gutxienez laneratzeko zailtasun bereziak dituzten langabetuak izango dira.

Kontratua egikaritu bitartean, adjudikatariak ezinbestez eutsi beharko dio bere eskaintzan egindako egikaritzarako baldintza bereziaren gaineko adierazpenean bereganatutako konpromisoari, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten langabetuak kontratatzeari dagokionean.

Egikaritzarako baldintza bereziaren betetzea egiaztatzeko xedez, kontratua egikaritzen hastean, kontratistak langile kontratatu berrien lan-kontratuak aurkeztu beharko ditu eta eskatzen zaizkion bestelako agiri guztiak ere bai, beharrezko eta egokitzat jotzen bada xede hori betetzeko. Langilerik kontratatu behar ez badu, hala adierazteko zinpeko deklarazioa egin beharko du.

Era berean, edozein unetan, kontratuak iraun bitartean, eskatu ahal izango zaio konpromiso hori betetzen ote den kontrolatzeko edozein agiri.
Justifikatutako arrazoiak direla kausa, adjudikatariak langabeturen baten kontratua desegingo balu, berehala jakinarazi beharko lioke Udalari eta langabetu horren ordez laneratzeko zailtasun bereziak dituen beste langabetu bat kontratatu beharko luke.
Eskatutako agiriak ekarri ezean eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzten langabetuak kontratatu ezean, ulertuko da kontratua ez dela bete eta horrek berez ekarriko du zigorra ezarri beharra. Zigor hori gehienez kontratuaren prezioaren % 10ekoa izango da, BEZa kenduta.

2. Gizarte bermeko baldintzak

Lan baldintzak betetzeko baldintzak
Enpresa kontratistak ezinbestez bete beharko ditu indarreko lege-xedapenak, lan arloari, Gizarte Segurantzari eta lan segurtasun eta osasunari dagokienean, batez ere garatu beharreko prestazioek lan ordenantza edota hitzarmen kolektiboren bat bete behar badute.
Kontratua egikaritu bitarte osoan, enpresa kontratistak ezinbestez bete beharko ditu aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboko arau eta baldintzak. Hala ere, adjudikatariak langileen soldaten gaineko baldintzak bete beharko ditu, aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialarekin bat etorriz.
Enpresa adjudikatariak, erantzukizuneko adierazpenen bitartez edo, hala behar denean, erakunde eskudunen egiaztagirien bitartez, egiaztatu behar du kontratuaren egikaritzan bete egin dituela aplikatu beharreko indarreko lege xedapen guztiak, lanpostuak babesteari, lan baldintzei eta lan arriskuak aurrezaintzeari dagokienez.
Behar hori bete ezean, ulertuko da kontratua ez dela bete eta horrek berez ekarriko du zigorra ezartzea, gehienez kontratuaren prezioaren % 10ekoa, BEZa kenduta.

Gutxieneko lan baldintzei buruzko baldintzak
1- Enpresa kontratistak ezinbestez ordaindu beharko du, kontratuaren egikaritzak dirauen denbora osoan, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboko ordainsaria, langileari dagokion kategoriaren arabera. Ordainsaria inoiz ez da izango hitzarmenak dakarrenetik beherakoa.
   Behar hori bete ezean, enpresa kontratistak zigorra izango balu, epai irmo baten bitartez, ulertuko litzateke kontratistak kontratuaren funtsezko baldintza ez lukeela beteko eta izan liteke kontratua suntsitzeko kausa bat.
2- Enpresa kontratistak konpromisoa bereganatu du, kontratua egikaritu bitartean, Portugaleteko Udalak kontratuaren objektua den jardunean diharduten langileei benetan aplikatzen zaizkien lan baldintzei buruz eskatzen dion informazio guztia emateko.
   Behar hori bete ezean, ulertuko da kontratua ez dela bete eta horrek berez ekarriko du zigorra ezartzea, gehienez kontratuaren prezioaren % 10ekoa, BEZa kenduta.

Lan harreman banakako zein kolektiboen gaineko arautegia betetzeari buruzko baldintzak
Agintaritza eskudunak enpresa kontratista zigortuko balu, bide administratiboko epai irmo baten bitartez zigortu ere, lan harremanen arloan kontratuaren egikaritza dela kausa lege-haustea eginda, eta lege hauste hori lan arloko arau-hauste eta zigorrei buruzko legearen testu berritua onartzen duen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuko 6. edo 7. artikuluek tipifikatuetako bat balitz, ulertuko litzateke

kontratua ez dela bete eta horrek berez ekarriko luke zigorra ezartzea. Zigor hori kontratuaren prezioaren % 5ekoa izango da, BEZa kenduta, lege haustea arina bada, eta gehienez % 10ekoa, berriz, BEZa kenduta, lege haustea larria bada (7. artikulua).
Kontratistak lege hauste oso larria, lan arloko arau-hauste eta zigorrei buruzko legearen testu berritua onartzen duen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuko 8. artikuluak tipifikatuetako bat eginda, kontratuaren egikaritza dela kausa, zigorra jasoko balu, ulertuko litzateke kontratistak kontratuaren funtsezko baldintza ez lukeela beteko eta izan liteke kontratua suntsitzeko kausa bat, behin zigorra irmoa izanik administrazio bidean.
Kontratistak, era berean, berandutu gabe jakinaraziko dio kontratuaren arduradunari, kontratua egikaritzean egindako zerbaitengatik lan arriskuak aurrezaintzeko arloko zigorra izanez gero. Halaber jakinarazi beharko dio zigor horren kontrako errekurtsorik egin ote den eta errekurtso horren gaineko ebazpenaz ere bai. Informazioaren inguruko behar hori bete ezean, ulertuko da kontratua ez dela bete eta horrek berez ekarriko du zigorra ezartzea, gehienez kontratuaren prezioaren % 10ekoa, BEZa kenduta.

Lan-arriskuak aurrezaintzeko arauak betetzeko baldintzak
Agintaritza eskudunak enpresa kontratista zigortuko balu, bide administratiboko epaitza irmo baten bitartez zigortu ere, lan harremanen arloan, kontratuaren egikaritza dela kausa, lege-haustea eginda, lege hauste hori lan arloko arau-hauste eta zigorrei buruzko legearen testu berritua onartzen duen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuko 6. edo 7. artikuluek tipifikatuetako bat balitz, ulertuko litzateke kontratua ez dela bete eta horrek berez ekarriko luke zigorra ezartzea. Zigor hori kontratuaren prezioaren % 5ekoa izango da, BEZa kenduta, lege haustea arina bada, eta gegienez % 10ekoa, berriz, BEZa kenduta, lege haustea larria bada (7. artikulua).
Kontratariak lege hauste oso larria, lan arloko arau-hauste eta zigorrei buruzko legearen testu berritua onartzen duen abuztuaren 4ko 5/2000 Legegintzako Errege Dekretuko 8. artikuluak tipifikatuetako bat eginda, zigorra jasoko balu, ulertuko litzateke kontratistak kontratuaren funtsezko baldintza ez lukeela beteko eta izan liteke kontratua suntsitzeko kausa bat, behin zigorra irmoa izanik administrazio bidean.
Kontratistak, era berean, berandutu gabe jakinaraziko dio kontratuaren arduradunari, kontratua egikaritzean egindako zerbaitengatik lan arriskuak aurrezaintzeko arloko zigorra izanez gero. Halaber jakinarazi beharko dio zigor horren kontrako errekurtsorik egin ote den eta errekurtso horren gaineko ebazpenaz ere bai. Informazioaren inguruko behar hori bete ezean, ulertuko da kontratua ez dela bete eta horrek berez ekarriko du zigorra ezartzea, gehienez kontratuaren prezioaren % 10ekoa, BEZa kenduta.

Azpikontratatzeko baldintzak
Azpikontratazioa eginez gero, kontratista nagusiak kontratuaren egikaritzaren ardura osoa bereganatuko du Administrazioaren aurrean, baldintza administratibo berezien agiriak, kontratuaren edukia eta gizarte eta lan arloko behar guztiak hertsiki bete behar dituelarik.
Behar hori bete ezean, ulertuko da kontratua ez dela bete eta zigorra ezarriko zaio, gehienez kontratuaren aurrekontuaren % 10ekoa.

3. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako baldintzak
Kontratistak bermatu egingo du kontratuaren egikaritzaren agirietan, publizitatean, irudietan eta material guztietan erabiliko duen hizkera ez dela sexista izango. Halaber

ez du erabiliko emakumeen irudi baztergarririk ez eta estereotipo sexistarik ere, eta berdintasuna, presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzukidetasuna eta rol eta genero identitateen aniztasuna sustatuko ditu.
Kontratistak Emakume eta gizonen berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legea eta Emakume eta gizonen berdintasun efektiborako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa bete beharko ditu.
Kontratua egikaritu bitartean, enpresa kontratistak edo azpikontratistak emakumeen eta gizonen berdintasuna alor hauetan guztietan bermatu egingo du: trataera, laneratzea, sailkapen profesionala, sustapena, iraunkortasuna, prestakuntza, kontratuak desegitea, ordainsariak, lanaren kalitatea eta egonkortasuna eta lan jardunaldiaren iraupena eta antolamendua.

4. Azpikontratariei egin beharreko ordainketak betetzeko baldintzak
Kontratistak beti ere bete beharko ditu kontratuan parte hartzen duten azpikontratistei edo hornitzaileei egin beharreko ordainketen epeak, SPKLko 216. artikuluak ezarri bezala.
Udalak egiaztatu ahalko du zorrotz egiten direla kontratistek azpikontratistei edo hornitzaile guztiei egin behar dizkieten ordainketak. Kasu horretan, kontratuaren arduradunak hala eskatuz gero, kontratistak kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda xehekatua igorriko dio, azpikontratisten edo hornitzaileen parte-hartzea burutzen denean; bai eta horietako bakoitzaren azpikontratazioaren edo hornituraren baldintzak ere, ordainketa-epearekin zuzeneko lotura baldin badute. Halaber, haiei ordainketak egin izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko du, behin prestazioa amaituta.
Egiaztatze hori nahitaezkoa izango da obra-kontratuetan eta zerbitzu-kontratuetan, baldin eta, haien balio zenbatetsia bost milioi eurotik gorakoa bada edo azpikontratazioaren zenbatekoa kontratuko prezioaren ehuneko 30ekoa edo handiagoa bada, kontratista nagusiarekin obra-atal edo unitate jakin batzuk egiteko konpromisoa kontratu bidez beren gain hartu duten azpikontratistentzako ordainketei dagokienez. Horretarako, kontratu horietan kontratariak, obra-ziurtapen bakoitzean, azpikontratariei egindako ordainketen ziurtagiria aurkeztu beharko du.
Behar hori bete ezean, ulertuko da kontratua ez dela bete eta horrek berez ekarriko du zigorra ezartzea, gehienez kontratuaren prezioaren % 10ekoa, BEZa kenduta.

5. Kontratistaren gardentasun-beharra erakundearekiko
Kontratistak garden jokatuko du erakundearekin, kontratuaren adjudikaziotik eta egikaritzatik datozkion datu guztiei dagokienez, kontratua bukatu arte. Horren ondorioz, bai Udalari bai, arrazoi eta guzti, hala eskatzen dioten erakunde eta organismo publikoei eman beharko die eskatutako informazio guztia, gardentasunaren printzipioa bete nahian.
Behar hori bete ezean, ulertuko da kontratua ez dela bete eta zigorra ezarriko zaio, gehienez kontratuaren prestazioaren % 10ekoa, BEZa kenduta.

6. Datuen babesaren arloko araudi nazionalari eta Europar Batasunekoari men egiteko betebeharra
Udal honek kontratistari datuak lagatzea dakarten kontratuetan, kontratistak nahitaez bete behar du datuak babesteari buruzko Estatuko eta Europar Batasuneko araudia.
Betebehar hori funtsezko kontratu-betebeharra da, eta, beraz, bete ezean, kontratistak kontratua suntsiarazteko arrazoia izango du.

38.- Lan kontratuetan subrogatu

Baldin eta karatulak ezartzen badu kontratazio honek kontratuaren objektua den jardueran aritzen diren langile guztien lan kontratuak subrogatu behar dituela, subrogazio hori ahalbidetzen duten suposamenduetakoren bat gertatuta, hala jasota dagoelarik lege-arau, hitzarmen kolektibo edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko negoziazio baten osteko erabaki batean, kontratista subrogaturik geratuko da kontratuaren prestazioa ematen duen enpresaren lan- eta Gizarte Segurantzaren eskubide eta betebeharretan eta, horren ondorioz, errespetatu egin beharko ditu langileen gutxieneko antzinakotasuna, subrogatu beharra ezartzen duen arauarekin bat etorriz.

Kontratua bukatu baino lehen, enpresa kontratistak, enplegatzailea den heinean, ezinbestez eman beharko du informazio beharrezko guztia kontratuaren egikaritzan diharduten langileen baldintzei buruz, informazio horrek bide eman beharko baitu lan subrogazioak berez dakartzan lan gosteak zehatz-mehatz ebaluatzeko. Udalak eskatzen duen informazio guztia eman beharko da eta, edonola ere, subrogazioaren xede diren langileen zerrendak ere eman beharko dira, honako hauek adieraziz: aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboa eta langile bakoitzaren kategoriari, kontratu motari, lanaldiari, antzinatasun-datari, kontratuaren mugaeguneratzeari eta urteko soldata gordinari buruzko xehetasunak, bai eta indarrean diren itun guztiak ere, subrogazioaren eraginpeko langileei aplikatu behar zaizkienak. Informazio hori Administrazioak eman beharko die lizitatzaile interesdun guztiei, agiri honetako karatulako eranskin batean, informazioa SPKLko 130. artikulua betetzeko ematen duela ere adierazi behar duelarik.

Kontratistak baldintza honetako informazioa eman behar hori bete ezean, ulertuko da kontratua ez dela bete eta horrek berez ekarriko du zigorra ezartzea, gehienez kontratuaren prezioaren % 10ekoa, BEZa kenduta.

Subrogazioa eginda lan-kostuak handiagoak badira aurreko kontratistak kontratazio-organoari emandako informaziotik ondorioztatzen direnak baino, kontratistak zuzeneko akzioa erabili ahalko du aurreko kontratistaren aurka.

Kontratista subrogazioak ukitutako langileei ordaindu gabeko soldaten eta sortutako Gizarte Segurantzako kotizazioen erantzulea izango da, baita kontratua suntsitzen denean eta kontratista berriak langileak subrogatzen dituenean ere; betebehar hori ez da inola ere izango kontratista berriarena. Kasu horretan, aipatutako soldatak ez direla ordaindu egiaztatu ondoren, kontratistari zor zaizkion diru kopuruak atxikiko dizkio, soldata horien ordainketa bermatzeko, eta ez du behin betiko bermea itzuliko soldatak ordaindu direla frogatu arte.

39.- Kontratua aldatu

1. Behin kontratua burututa, guztion interesen alde baino ezin izango da aldatu, hala aurreikusita dagoenean edo, aurreikusi gabeko kasuetan, legeak aurreikusten dituen zertzeladak gertatzen direnean; hots:

A) Aurreikusitako aldaketak:

Kontratua aldatu ahal izango da, baldin eta karatulak hala aurreikusten badu eta, zehaz-methaz, argi eta eta garbi eta zalantzarik gabe adierazten badu zein baldintzatan egin daitekeen aldaketa, bai eta aldaketa egiteko aukeraren norainokoa, mugak eta izaera, hartaz baliatu ahal izateko baldintzak eta aldaketarako jarraitu beharreko prozedura.

Aurreikusitako aldaketen gehienezko muga kontratuaren hasierako prezioaren % 20koa izango da.

Ezin izango da egin hasierako kontratuaren izaera orokorraren aldaketarik.

Aldaketak ezin izango du berekin ekarri kontratuan aurreikusi gabeko prezio unitario berririk.

B) Aurreikusi gabeko aldaketak:

Kontratuak bakar-bakarrik aldatu ahal ziango dira SPLKko 205. artikuluko zertzeladak gertatzen direnean eta artikulu horrek berak ezartzen dituen mugekin.

2. Prezioa gauzatze-unitateen bidez ezartzen denean, ez da aldaketatzat hartuko, baldin eta horrela ezarri bada administrazio-klausula berezien agirian, kontratuan aurreikusitako unitateen kopurutik egiaz gauzatutakoen kopuruan bakarrik gertatzen den aldaketa, prestazioa modu egokian ematen den bitartean gertatutakoa betiere; halakoak likidazioan jaso ahalko dira, kontratuaren prezioaren % 10etik gorako gastuaren igoera sortzen ez badute.

3. Aurreikusitako kontratu-aldaketak ezinbestez egin beharko ditu kontratistak; aurreikusi gabeak ere ezinbestekoak izango dira, haien zenbatekoa –bakoitzarena edo orokorrean– kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko 20tik gorakoa denean, BEZa kenduta. Aldaketok kontratistari aldez aurretiko entzunaldia emanda erabakiko dira eta agiri administratibo batean formalizatu, behin betiko bermea egokitu ostean, behar izanez gero.

40.- Kontratua eten

Baldin eta Administrazioak kontraturen bat etetea erabakitzen badu, edo etena SPKLko 208. artikuluan xedatutakoa aplikatzeagatik badator, akta bat egin behar da, ofizioz nahiz kontratistak eskatuta, egoera hori sorrarazi duten inguruabarrak jasotzeko, eta kontratuaren egikaritzea nolako egoeran geratu den agertzeko.

Etetea erabaki eta gero, Administrazioak benetan jasandako eta fede emateko moduan egiaztatutako kalte-galerak ordaindu behar dizkio kontratistari, SPKLko 208.2 atalean adierazitako kontzeptuak direla eta. Erreklamatzeko eskubidea kontratistak kontratua egikaritzeari berrekiteko agindua jaso eta urtebeteko epean iraungiko da.

41.- Enpresa kontratistaren ondorengotza kontratua egikaritu bitartean

Sozietate kontratistak enpresen bat-egite batean parte hartzen badu, kontratuak indarrean jarraituko du bat-egitearen ondorioz sortu den erakundearekin edo erakunde bereganatzailearekin; izan ere, erakunde hori kontratutik sortutako eskubide eta betebehar guztietan subrogatuko da. Era berean, enpresen (edo haien jarduera-adarren) zatiketa, ekarpena edo eskualdatzea gertatzen denean, kontratuak indarrean jarraituko du kontratua eskuratuko duen erakundearekin; erakunde horrek kontratutik eratorritako eskubide eta betebehar guztiak hartuko ditu subrogazio bidez, baldin eta gaitasun-baldintzak betetzen baditu, kontratatzea debekatua ez badu eta kontratua adjudikatu zenean beharrezko ziren kaudimen- eta gaitasun-baldintzak betetzen bazituen edota aipatutako eragiketen onuradun diren sozietateek eta zatitutako ondare, enpresa edo adarren iturburua den sozietateak –artean irauten badu– harekiko erantzukizun solidarioa hartzen badute kontratua egikaritzeari dagokionez.

Behin betiko bermea, Udalaren irizpidearen arabera, berritu ahalko da edo erakunde berriak izenpetzen duen beste berme batekin ordeztu ahalko da.

42.- Konfidentzialtasuna

Enpresa kontratistak kontratua egikaritzean eskuratzen duen informazio oro da konfidentziala. Hala kontratistak nola kontratistak berak kontratua egikaritzeari atxikitako langile guztiek, beraz, ezin izango dute euren buruentzako erabili, ez eta hirugarren batzuei eman ere, kontrataturiko lanen gaineko inolako datu edo

informaziorik, ez eta kontratua egikaritzean eskuratzen duten datu edo informaziorik ere, horretarako Administrazioaren idatzizko baimena beharko bailukete. Horren ondorioz, ezinbestez erabili behar dituzte eskura dituzten baliabide guztiak, egindako lanaren informazioaren eta lortutako emaitzen konfidentzialtasunari eta erreserbari eusteko. Edonola ere, lanak berez ez dakarrenean datu pertsonalak erabiltzea, hala enpresak nola bere langileek debekatuta izango dute datu pertsonalak eskuratzea eta ezinbestez gorde beharko dituzte isilpean zerbitzua ematean ezagutu ahal izan dituzten datuak.

43.- Datu pertsonalen tratamendua

Baldintza-agiri honen karatulan ezarritakoaren arabera, kontratua gauzatzeko datuen lagapena eta datu pertsonalen tratamendua egin behar direla xedatzen den kontratuetan, tratamenduaren arduradunaren kontura, klausula honen edukia aplikatuko da karatulan ezarritako helburuarekin, bai eta funtsezko kontratu-betebehar gisa kalifikatutako betebehar hauek betetzea ere:

1.- Kontratistak beti bete behar du datuak babesteari buruzko araudi nazionala eta Europar Batasunekoa.

2.- Enpresa esleipendunak, kontratua formalizatu aurretik, deklarazio bat aurkeztuko du, non adieraziko duen zerbitzariak non kokatuko diren eta horiei lotutako zerbitzuak nondik eskainiko zaizkien.

3.- Kontratistak kontratuaren iraunaldian zehar gertatzen den edozein aldaketa jakinaraziko du, zerbitzariak non kokatuko diren eta haiei lotutako zerbitzuak nondik eskainiko zaizkien informatzean.

4.- Lizitatzaileek eskaintzan adierazi beharko dute zerbitzariak edo haiei lotutako zerbitzuak azpikontratatu nahi dituzten ala ez, bai eta azpikontratisten izena edo enpresa-profila ere, kaudimen profesional edo teknikoaren baldintzen arabera zehaztuta.

a.- Informazioa datu pertsonalen tratamenduaz:

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrarekin (DBEO) bat etorriz, argibide hauek eman behar dira lizitatzaileen eta zerbitzuaren adjudikatariaren datu pertsonalei buruz:

Tratamenduaren arduraduna: PORTUGALETEKO UDALA. IFK: P4809100C. Helbidea: Solar plaza z. g. 48920 Portugalete (Bizkaia).

Datuak babesteko delegatuarekiko harremanetarako datuak: Solar Plaza z. g. 48920 Portugalete (Bizkaia).

Tratamenduaren xedea: lizitazio hau kudeatzea, adjudikatari suertatuz gero, zurekiko kontratu-harremana eta eman behar dituzun zerbitzuak egoki mantendu, garatu, bete eta kontrolatzeko xedez.

Legeztapena: lizitatzaileen datu pertsonalak tratatzeko lege oinarria kontratua egin aurreko neurriak aplikatzean datza.

Adjudikatariaren datu pertsonalak tratatzeko lege oinarria, berriz, kontratua egikaritzea da.

Datuen jasotzaileak: Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearekin bat etorriz, lizitatzaile eta adjudikatariei buruzko datuak Udalaren kontratatzailearen profilean eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Sektore Publikoaren Kontratazio Plataforman argitaratuko dira eta jakinarazi egingo zaizkie Espainiako Ogasun eta Funtzio Publikoaren Ministerioaren Sektore Publikoaren Kontratuen Erregistroari eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kontuen Auzitegiari.

Datuak kontserbatzeko epea: lizitatzaileen datu pertsonalak lizitazioak iraun bitartean kontserbatuko ditugu eta, behin lizitazioa bukatuta, lege beharrak betetzeko behar diren epeetan ere bai.

Enpresa adjudikatariaren datuak, berriz, kontratu-harremanak iraun bitartean kontserbatuko ditugu eta, aurrekoan bezala, behin lizitazioa bukatuta, lege beharrak betetzeko behar diren epeetan ere bai.

Datuak babesteko eskubideak: une oro eska diezagukezu zeure datu pertsonalak irispidean izatea, zuzentzea edo ezereztea, tratamendua mugatzea (mugatzea eskatuz gero, erreklamazioen kontrako defentsa egiteko baino ez ditugu gordeko) edo tratamenduaren aurka egitea (erabaki horren oinarria tratamendu automatizatua baino ez bada, profilak egitea barne dagoelarik). Halaber duzu zeure datuak transferitzeko eskubidea.

Horretarako, idatzizko eskaera bidali beharko duzu helbide honetara: PORTUGALETEKO UDALA, Solar plaza z. g. 48920 Portugalete (Bizkaia). Eskaerarekin batera NANaren fotokopia ere bidali beharko duzu.

Erreklamazioa Datuak Babesteko Euskal Agentziari egin diezaiokezu (Beato Tomás de Zumárraga kalea 71, 3 - 01008 Vitoria-Gasteiz).

b.- Adjudikatariaren jarduna datu pertsonalen tratamenduaren eragile gisara

Datu pertsonalen tratamendua izango da datu pertsonalen gainean edo datu pertsonalen multzoen gainean egiten den edozein eragiketa eta eragiketa-multzo, prozedura automatizatuak erabilita zein erabili gabe; hala nola: datuak biltzea, erregistratzea, antolatzea, egituratzea, kontserbatzea, egokitzea edo aldatzea, ateratzea, kontsultatzea, erabiltzea, transmisioz lagatzea, hedatzea edo irispidean jartzeko beste edozein forma, datuak alderatzea edo interkonektatzea, mugatzea, ezabatzea edo suntsitzea.

Baldin eta kontratuak berez badakar datu pertsonalak tratatzea edo enpresa kontratistak edo azpikontratistak datu pertsonalak eskuratzea, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorreko (DBEO) 28. artikulua bete beharko da. Horren ondorioz, alde biek datuak tratatzeko agiria formalizatuko dute, zeinen bidez, batetik, eragilea Udalarekin lotuko baita, DBEOko 28.3 atalak ezarri bezala lotu ere, eta bestetik, enpresak gutxienez baldintza hauek onartuko baititu:

a.- Arduradunaren jarraibide dokumentatuei segituz baino ez ditu tratatuko datu pertsonalak, baita hirugarren herrialde batera edo nazioarteko erakunde batera transferitzen diren datu pertsonalen kasuan ere, noiz eta ez dagoen horretara behartuta eragileari aplikagarria zaion Europar Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidearen indarrez; kasu horretan, tratamenduaren aurreko lege-betebehar horren jakitun ipiniko du eragileak arduraduna, salbu eta zuzenbide horrek debekatu egiten badu, interes publikoko arrazoi sendoak direla medio.

Horiek horrela, tratamendu-eragileak berehala ipiniko du jakinaren gainean arduraduna, baldin eta, beraren aburuz, instrukzio batek DBEO edo datu-babesaren alorreko Europar Batasunaren edo estatu kideen beste xedapenik urratzen badu.

b.- Bermatuko du datu pertsonalen tratamendua egiteko baimena duten pertsonek konpromisoa izango dutela konfidentzialtasuna errespetatzeko edo konfidentzialtasunari buruzko estatutu-betebehar baten mende daudela.

c.- DBEOko 32. artikuluaren arabera beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko ditu.

d.- Beste eragile batengana joz gero, aurrez beharko du arduradunaren idatzizko baimena, espezifikoa edo orokorra. Azken kasu horretan, beste eragile batzuen aukeraketan edo ordezkapenean aurreikusten diren aldaketen berri jakinaraziko dio eragileak arduradunari, zeinek, hartara, aukera izango baitu aldaketa horien aurka egiteko. Edonola ere, kontratua izenpetuko du tratamendu-eragileordearekin, DBEOko 28.3 atalak ezarri bezalaxe.

e.- Tratamenduaren nolakotasuna kontuan hartuta, laguntza emango dio tratamenduaren eragileari, ahal den guztietan, neurri tekniko eta antolakuntzakoen bitartez, interesdunen eskubideak egikaritzea helburu duten eskabideei erantzuteko arduradunak duen betebeharra konplitzeko.

f.- Laguntza emango dio tratamenduaren arduradunari datu pertsonalen segurtasunaren eta eraginaren ebaluazioaren inguruko beharrak betetzen direla bermatzeko, kontuan hartuta tratamenduaren nolakotasuna eta tratamendu-eragilearen esku dagoen informazioa.

g.- Tratamenduaren arduradunak hartzen duen erabakiaren arabera, datu pertsonal guztiak ezereztu edo itzuliko ditu tratamenduaren zerbitzuen prestazioa amaitutakoan, eta dauden kopiak ezabatuko ditu, noiz eta Europar Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbideak ez duen datu pertsonalak kontserbatzea eskatzen.

h.- Artikulu honetan ezarritako baldintzak betetzen direla frogatzeko behar den informazio guztia jarriko du tratamenduaren arduradunaren esku, bai eta arduradunak edo hark baimendutako beste auditore batek auditoriak, ikuskapenak barne, egin ditzan ahalbidetzeko eta laguntzeko ere.

Azaroaren 8ko 9/2017 SPKLko 153.4 atalarekin bat etorriz, adjudikatariak datu pertsonalak tratatzeko agiririk formalizatzen ez badu, hori kontratuaren printzipalaren zati bat izanik, ulertuko da kontratua ez dela formalizatu adjudikatariari eragotzi dakiokeen zergati batengatik eta adjudikatariak atzera egin duela. Horren ondorioz, adjudikazioa hurrengo lizitatzaileari egingo zaio, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeran, eta horrela egingo da behin eta berriro, kontratu hori izenpetzen duen lizitatzaileari azken adjudikazioa egin arte.

Aitzitik, baldin eta adjudikatariaren zerbitzuak ez badakar berez datu pertonalak tratatzea, berariaz debekatzen da datu horiek eskuratzea. Hala ere, ustekabean edo unean-unean, fitxategien arduradunaren datu pertsonalak ikusi edo tratatzen badira, enpresa adjudikatariaren langileek sekretua gorde behar izango dute. Entitate adjudikatariak, gainera, neurri egokiak hartuko ditu, bere langileek datu pertsonalak, datu pertsonalak dituzten euskarriak edo informazio-sistemako bitartekoak eskuratzea mugatzeko.

44.- Lanen jabetza

Kontratua egikaritzeko egiten diren azterlan eta agiri guztiak Portugaleteko Udalaren jabetzapekoak izango dira. Horren ondorioz, Udalak kopiatu, argitaratu eta hedatu ahal izango ditu, osorik zein zatiz, eta adjudikatariak, lan horien egilea izanik ere, ezin izango du horren aurka ezer egin.

Adjudikatariak ezin izango ditu kontratu honen egikaritza dela medio egin dituen lan horiek inola ere erabili, ez eta hedatu ere, ez osorik ez eta zatiz ere, ez zuzenik ez eta laburturik ere, baldin eta, kontratazio organoaren esanbidezko baimenik ez badauka.

Jabetza intelektualaren edo industrialaren eskubide baten babespean dauden produktuak garatzeko eta eskaintzeko zerbitzu-kontratuek berekin ekarriko dute eskubide hori Portugaleteko Udalari laga beharra. Edonola ere, kontratazio-organoak baimena eman ahal izango die beti SPKLko 3.1 atalak aipatzen dituen sektore publikoko ente, organismo eta erakundeei dena delako produktu hori erabiltzeko, baita jabetza intelektualeko eskubideak lagatzeko aukera baztertzen denean ere.

VI.- KONTRATUA AZKENDU

Kontratua behin beteta edo behin suntsituta azkenduko da.

45.- Kontratua bete

Ulertuko da kontratistak kontratua bete duela, kontratistak, kontratuak ezarri bezala eta Administrazioa horrekin pozik egonik, prestazio osoa egiten duenean.

Jasotzea

Hori egiaztatzeko, Administrazioak harrera- edo adostasun-egintza formal eta positibo bat (jasotze-akta) egin behar du kontratuaren objektua entregatu edo betetzen denetik hurrengo hilaren barruan, agiriko karatulak besterik zehazten ez badu behintzat.

Kontratuaren arduradunak Administrazioko kontu-hartzailetzari jakinaraziko dizkio egintza horren data eta lekua, egintza horretara joan dadin inbertsioa egiaztatzeko eginkizunak betetzera. Kontu-hartzailetzako organoak kontratu guztien harrera materialean lagunduko du, inbertsioen fiskalizatze materialaren eginkizuna betetze aldera, horixe eskatzen baitu martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuak, Toki Ogasunak Arautzen dituen Legearen testu bategina onesten duenak, 214.2.d) artikuluan. Harrera horretan, kontratuaren objektuan espezializatuta dagoen teknikari baten laguntza eduki ahalko du. Teknikari horrek obra-zuzendariaz eta kontratuaren arduradunaz beste bat izan beharko du (9/2017 Legeko hirugarren xedapen gehigarria).

Baldin eta Udalak uste izango balu egindako lana kontrataturiko prestazioarekin bat ez datorrela, idatzizko jarraibide zehatzak eman beharko lizkikoke enpresari, sumatutako hutsak edo akatsak konpondu ahal izateko. Idazki horretan bertan adieraziko lioke, halaber, zein epetan konpondu beharko lituzkeen.

Enpresa kontratistak erreklamaziorik egingo balu Udalak egindako oharrei buruz, kontratazio-organoak ebatzi beharko luke erreklamazio hori.

Enpresa kontratistak erreklamaziorik egingo ez balu Udalak egindako oharrei buruz, ulertuko litzateke oharrekin bat datorrela eta behartuta dagoela sumatutako hutsak edo akatsak konpontzera.

Udalak ez ditu lanak jasoko, enpresari egindako jarraibideak bete arte. Behin beteta, horren akta egingo da.

Hutsak edo akatsak konpontzeko emandako epea igarota, konponketa behar bezala egin ez bada, Administrazioak uko egingo dio lanak jasotzeari, salbuetsita egongo da ordaindu beharretik edo, behar izanez gero, eskubidea izango du ordaindutakoa atzera eskuratzeko.

Edonola ere, egindako lanak bat ez badatoz kontrataturiko prestazioarekin eta horren zioa ezin bazaio egotzi Administrazioari, kontratazio organoak uko egin ahal izango dio lanak jasotzeari, salbuetsita egongo da ordaindu beharretik edo, behar izanez gero, eskubidea izango du ordaindutakoa atzera eskuratzeko.

Enpresa kontratistak eskubidea edukiko du kontratatutako prestazioa ondo edo gaizki eman den adierazteko egiten diren oharrak jakiteko eta haietaz esateko duena entzun dakion.

Kontratuaren likidazioa

Harrera- edo adostasun-akta jaso ondorengo hogeita hamar eguneko epearen barruan erabaki eta jakinarazi behar zaio kontratistari kontratuaren likidazioa, kasua bada eta kontratuaren izaerak hala eskatzen duenean, eta, hala behar badu, hari dagokion saldoa ordaindu. Hala ere, harrera hori gertatu ondorengo egunen batean jasotzen badu faktura Administrazio Publikoak, kontratistak faktura hori dagokion erregistroan eta faktura elektronikoari buruzko indarreko arauak dioen moduan aurkezten duen egunetik aurrera kontatuko da hogeita hamar eguneko epea. Likidatutako saldoa ordaintzen berandutuz

gero, kontratistak eskubidea edukiko du berandutza-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak jasotzeko, abenduaren 29ko 3/2004 Legean jasotakoaren arabera.

46.- Bizioak eta akatsak berme-epean

Berme-epea, karatulak ezarriz gero, jasotzeko edo adostasun-egunetik aurrera zenbatuko da.

Egindako lanetan akatsik edo hutsik aurkitzen bada berme-epeak iraun bitartean, kontratazio-organoak kontratistari erreklamazioa egiteko eskubidea edukiko du, kontratistak akats edo huts horiek konpon ditzan.

Baldin eta enpresa kontratistak akatsak konponduko ez balitu kontratazio organoak ezarritako epean, kontratazio organoak Herri Administrazioen Jardunbide Arruntari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 100. artikuluak dakartzan nahitaezko betearazpenerako bideak erabili ahal izango lituzke.

Aurreko apartatuetan aipatutako eragozpenik zein salaketarik formalizatu gabe amaitzen bazaio Administrazioari berme-epea, egindako prestazioa dela-eta izan zezakeen erantzukizunetik salbuetsita geldituko da kontratista. Nolanahi ere, kontratua obra-proiektuak egiteko bazen, halako kontratuetarako ezarritakoa eta akatsak konpondu beharraz eta erantzukizunaz 9/2017 Legeko 314. eta 315. artikuluetan ezarritakoa bete beharko da.

Kontratistak eskubidea edukiko du kontrataturiko prestazioa betetzeari buruz egiten diren oharpenak jakiteko eta horretaz iritzia emateko.

47.- Bermeak itzuli eta ezereztu

Ez da bermerik itzuli edo ezereztuko, harik eta berme-epea amaitu eta dena delako kontratua behar bezala bete arte, edota kontratistaren errurik gabe kontratua suntsiarazi arte.

Kontratuaren likidazioa onartu ondoren, eta berme-epea amaitu eta gero, bermearen kontra gauzatu beharreko erantzukizunik agertzen ez bada, itzuli egingo da eratutako bermea, edo ezereztu egingo da abala edo kauzio-asegurua.

Kontratuen lagapena egiten denean, lagatzaileak emandako bermea ez da itzuliko edo ezereztuko, harik eta lagapen-hartzaileak bere bermea formalki eratu arte.

48.- Kontratua suntsiarazi

Esan bezala, kontratua behin beteta edo behin suntsiarazita azkenduko da. Azkentzea erabakitzeko karatulak dakartzan kausak gertatu behar dira edo beste hauek:

a) Kontratista pertsona partikularra bada, haren heriotza edo gerora etorritako ezgaitasuna; eta kontratista sozietatea bada, nortasun juridikoa azkentzea, hargatik eragotzi gabe 9/2017 Legeko 98. artikuluan kontratistaren ondorengotzari buruz ezarritakoa.
b) Beste edozein prozeduratan, hartzekodunen konkurtsoa deklaratzea.
c) Administrazioa eta kontratista ados jartzea.
d) Kontratista epeak betetzen berandutzea; nolanahi ere, baldintza-agirian edo kontratuan ezarritako lan-planarekiko atzerapen justifikatu gabea, edozein jardueratan, baldin eta, kontratuaren hasierako iraupen-epearen heren batetik gorakoa bada, izan daitezkeen luzapenak barnean direla.
e) Atzera egitea zerbitzuaren prestazioan hasi baino lehen, edo kontratuaren hasiera Administrazioari egotzi dakiokeen zergati batengatik lau hilabetetan etetea, kontratuak beraz ezarritako hasiera-egunetik aurrera zenbatuta, baldin eta karatulak edo preskripzio teknikoen agiriak beste epe laburragorik ezartzen ez badute behintzat.

f) Atzera egitea behin zerbitzuaren prestazioan hasita, edo, Administrazioak erabakita, kontratua zortzi hilabete baino gehiagotan etetea, baldin eta, karatulak edo preskripzio teknikoen agiriak beste epe laburragorik ezartzen ez badute behintzat.
g) Administrazioa ordainketa egiten berandutzea, 9/2017 Legeko 198.6 atalean ezarritako epea edo 198.8 atalaren babespean zehaztutako epe laburragoa gainditzuz.
h) Kontratuaren betebehar nagusia ez betetzea.
i) Funtsezko gainerako betebeharrak ez betetzea, baldin eta, azken horiek halakotzat kalifikatu badira baldintza-agirietan edo kontratuan, 9/2017 Legeko 211.1.f baldintzak gertatzen direnean.
j) Prestazioa ezin eman izatea hasiera batean itundutako baldintzetan, kontratua ezin denean aldatu 9/2017 Legeko 204. eta 205. artikuluei jarraituz; edo, 205. artikuluan ezarritako inguruabarrak gertatuta, aldaketek –bakarka nahiz baturik– gutxi gorabehera kontratuaren hasierako prezioan ehuneko 20 baino handiagoko aldaketak dakartzatenean, balio erantsiaren gaineko zerga kenduta.
k) Kontratistak kontratuan lan egiten ari diren langileei soldatak ez ordaintzea kontratua egikaritzen ari den bitartean, edo langile horientzat indarrean dauden hitzarmen kolektiboetan ezarritako baldintzak ez betetzea kontratua egikaritzen ari den bitartean. Kontratua suntsiaraztea soilik erabakiko da enpresa kontratistako langileen ordezkariek eskatuta; horretan, salbuespena izango da soldatak ez ordaintzeak ukitutako langileak subrogazio batetik baldin badatoz, SPKLko 130. artikuluari jarraituz, eta enpresa kontratistak zor dituen soldaten zenbatekoak kontratuaren adjudikazio-prezioa ehuneko 5ean gainditzen duenean; izan ere, kasu horretan, suntsiaraztea ofizioz erabaki ahalko du zuzenean kontratazio-organoak.
l) Kontratuan berariaz adierazitakoak.
m) Kontratu osagarriak suntsituko dira beti ere nagusia suntsitzen denean.

Kontratuak suntsitzeko arrazoi hauei eta horien ondorioei dagokienez 9/2017 Legeko 212, 213 eta 313. artikuluak bete beharko dira.

49.- Kontratuak laga eta azpikontratazioa

Kontratuak laga

Kontratutik sortutako eskubideak eta betebeharrak hirugarren bati laga ahalko dizkio kontratistak, baldin eta, lagatzailearen ezaugarri teknikoak edo pertsonalak kontratua adjudikatzeko arrazoi erabakigarriak izan ez badira, beti ere 9/2017 Legeko 214. artikulua bete behar delarik.

Lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztien subrogazioa jasoko du lagapen-hartzaileak.

Azpikontratazioa

Kontratistak hirugarrenekin itundu ahalko du prestazioaren zati bat ematea, baldin eta, agiri honetako karatulak ezartzen ez badu prestazioa edo haren zati bat berak zuzenean eman behar duela, 9/2017 Legeko 215.2.d eta e letretan ezarritakoaren arabera.

Azpikontratuak egiteko, 9/2017 Legeko 215. artikuluko arauak bete behar dira. Edonola ere, kontratistak idatziz eta aldez aurretik jakinarazi beharko du azpikontratuak egiteko asmoa duela, prestazioaren zer zati azpikontratatu nahi duen aipatuko du, bai eta azpikontratistaren identitatea ere, eta behar beste justifikatuko du azken horrek gaitasuna duela hura egikaritzeko.

Kontratista nagusiari dagokionez baino ez dituzte betebeharrak izango azpikontratistek, eta hark bereganatuko du, beraz, Administrazioarekiko erantzukizun osoa.

Kontratistak Legeko 125. artikuluan azpikontratazioak egiteko ezarritako baldintzak urratuz gero, azpikontratistaren gaitasuna egiaztatu ez bada edo larrialdi-egoera dakarten inguruabarrak edo azpikontratazioa presaz egin beharra dakarten inguruabarrak egiaztatu ez badira, horrek ondorio gisa ekarriko du, karatulak ezarritakoaren arabera, kontratistari azpikontratuaren zenbatekoaren % 50erainoko zigorra ezartzea edo kontratua suntsiaraztea, baldin eta aipatutako legeko 211.1.f ataleko baldintzak betetzen badira.
Kontratistak langileen ordezkariei azpikontratazioaren berri eman beharko die, lan-legeriarekin bat etorriz.
Kontratistak inola ere ezingo du kontratu-zati bat egikaritzeko itunik egin ordenamendu juridikoaren arabera kontratuak egiteko desgaituta dauden pertsonekin edo aipatutako legeko 71. artikuluan jasotako egoeretako batean dauden pertsonekin.
Aipatutako 215. artikuluan ezarritako baldintzak betetzen diren bitartean eta administrazio-baldintzen agiriko karatulan ezarriz gero, azpikontratistei zuzeneko ordainketak egin dakizkieke, baldin eta kontratista nagusia azpikontratistak aurkeztutako fakturarekin ados badago.

VII.- ADMINISTRAZIOAREN PRERROGATIBAK, ERREKURTSOAK ETA DEUSEZTASUNA

50.- Administrazioaren prerrogatibak

Kontratazio-organoak prerrogatiba dauka administrazio-kontratuak interpretatzeko, kontratu horiek betetzean sortutako zalantzak ebazteko, interes publikoa dela-eta kontratuak aldatzeko, kontratuaren egikaritzea eteteko, kontratua suntsiaraztea erabakitzeko eta suntsiaraztearen ondoreak zehazteko, beti ere indarreko legeriak ezartzen dituen mugak eta eskakizunak bete behar dituelarik.
Kontratazio organoak interpretatzeko, aldatzeko eta suntsiarazteko prerrogatibak erabiliz ematen dituen ebazpenak berehala betearazi beharrekoak izango dira.

51.- Kontratazio arloko errekurtso berezia

Kontratazio arloko errekurtso berezia onartzen duten kontratuetan, kontratazio arloko errekurtso berezia onartuko dute, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa egin baino lehen, SPKLko 44. artikuluak zerrendatzen dituen ekintzek.
Kontratazio-arloko errekurtso berezia aukerakoa izango da eta egiteko epea, berriz, 15 egun baliodunekoa izango da, legeko 50. artikuluak ezarri bezala zenbatuta.
Errekurtsoaren idazkia kontratazio organoaren erregistrora aurkeztu ahal izango da (Solar plaza z. g. Portugalete 48920) edo, bestela, errekurtsoa ebatzeko eskumena duen organoaren erregistrora (Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren Erregistroa, Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz) edo Administrazio Jardunbide Arruntari buruzko 39/2015 Legeko 16.4 atalak aipatzen dituen tokietara ere bai.
Aurreko paragrafoan aipatu gabeko tokietara aurkezten diren errekurtsoak berehala eta ahalik eta lasterren jakinarazi beharko zaizkio Kontratuen Inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoari.
Errekurtsoaren idazkiak hauexek agertu beharko ditu: errekurtsoa jarritako ekintza, errekutsoaren zioa, errekurtso-egileak erabili behar dituen frogabideak eta, aplikatzea eskatuz gero, Legeko 49. artikuluak aipatzen dituen neurrien antzekoak.
Idazki horrekin batera agiri hauek joango dira:

a) Agertutako alderdiaren ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentua, non eta organo berean aurkeztu den eta ebazteke dagoen beste errekurtso baten jarduketetan ez dagoen halakorik. Kasu horretan, ziurtagiria eskatu ahalko da, prozedurara batzeko.
b) Errekurtsogilearen legitimazioa frogatzen duen dokumentua (edo dokumentuak), legitimazioa herentziaz edo beste edozer tituluren bidez jaso duenean.
c) Aurkatutako berariazko egintzaren kopia edo helarazpena, edota egintza jaso duen espedientearen aipamena, edo hura argitaratu den aldizkari ofizialarena edo kontratatzailearen profilarena.
d) Errekurtsogilearen eskubidea oinarritzen duen dokumentua edo dokumentuak.
e) Gaitutako helbide elektroniko bat, zeinetara komunikazioak eta jakinarazpenak bidaliko baitira, 9/2017 Legeko hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoari jarraituz.

52.- Birjarpenezko errekurtsoa

Errekurtso berezirik ezin jar dakiekeen kontratu administratiboak adjudikatzeko prozeduretako ekintzen kontra, nahi izanez gero, birjarpenezko errekurtsoa egin daiteke, ebazpena jakinarazi eta biharamunean hasita zenbatu beharreko hilabeteko epean, Herri-Administrazioen Erregimen Juridikoari eta Administrazio-Jardunbide Arruntari buruzko 39/2015 Legearekin eta Administrazioarekiko Auziak Arautzeko uztailaren 13ko 29/1998 Legearekin bat etorriz.